

Herririk Herri 171
Urduri dantza taldeak 50. urtemuga ospatuko du zapatuan Otxandion

Ekonomia 1101
Elixeko beharginak greba mugagabea egitekotan, lan hitzarmenik ezear



Berbaz 191
Nerea Zubia: "Herrietan egiten duten lana batzeko gunea sortu dugu"

Gehiengo sindikalak grebarako deia egin du

> Durangaldeko gehiengo sindikalak ekainaren 29rako greba deitu du

> Durangaldean 120 enpresa komite eta delegatu atxiki direla azaldu dute

10



ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek prentsaurrekoa eman dute Durangon. Kepa Aginako

Musika, antzerkia eta zirkua Durango eta Elorrioko kaleetan

KULTURA• Kultur emanaldiak antzokietatik kanpora ateratzeko asmoz Durangon antolatzen duten Uda Kalean Bizi programazioari domekan ekingo diote. Udako iluntzeak eta gauak kulturagaz freskatzeko, uztailaren 2an abiatuko dute Elorrioko Musikaire ere .

12-14

Auto gidariak lehian, bihar, Mañaritik Urkiolarako igoseran

KIROLA• Aitor Zabaleta da irabazteko faborito. Nagusituko balitz, Euskadiko Txapelketa esku-eskura izango luke, Angela Vilariñok ez duela ko parte hartuko. Aritz Egozkue nafarra eta Ruben Nogueira oñatiarra dira Zabaletaren garaipena kolokan ipini dezaketen gidariak.

19



• **Mañaria**
Zalloventaren auzian herritar taldeari eman dio arrazoia Gorenak


6

• **Durango**
Euskal Harley Eguna Durangon, uztailaren 2tik 4ra bitartean

2

• **Atxondo**
Epaileak Anbotopek lokala utzi behar duela ebatzi du

3



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Uztailaren
1etik 20ra

MATRIKULA OFIZIALA

2010-2011

Ikasle guztiak: ekainean gainditu dutenak zein gainditu ez dutenak, eta ikasle berriak
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:
www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) ☎ Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42



HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Herri osora zabalduko dute jai giroa Euskal Harley Egunean

Uztailaren 2tik 4ra Mas Curvas elkarteak harley motoen topagune bihurtuko du Durango

Uztailaren 2tik 4rako asteburuan Euskal Harley jaiaren bigarren aldia ospatuko du Mas Curvas motozaleen elkarteak. Iaz legez, aurten ere Landako erakustazoka izango da estatu osotik etorriko diren motozaleen elkargune, baina aurten jai Durango osora zabaltzeko ahalegina egingo dute. Horrela, uztailaren 3ko zapatu arratsaldean, 300 bat harley ikusteko aukera egongo da Andra Mariko elizpean.

Era berean, Landako erakustazokako ekitaldiak amaitzen direnean, Senegalgo talde baten batu-kadaren laguntzagaz egingo dute Landakotik Goienkalerako bidea,

jai giroari jarraipena emanez. Beste nobedadeetako bat moto-egileen erakusketa izango da. Motozale askok motoak euren gustura kustomizatzeko ohitura dute, benetako artelanak sortuz, eta horretan onenak diren Estatuko 10 lagunek euren motorrak erakutsiko dituzte, asteburu osoan, Landako erakustazokan.

Bide hezkuntza saioa

Nobedadeak ez diren arren, iaz arrakastatsuak izan ziren beste ekimen bi ere azpimarratu dituzte aurkezpen ekitaldian. Batetik, gaztetxoei zuzenduta bide hezkuntza saioak egingo dituzte eta



Mas Curvasek 25.000 lagun inguru batzea itxaroten du datorren asteburuan.

Stop Accidentes elkarteak kideak ere etorriko dira sentsibilizazio kanpaina egitera. Bestetik, Eusko Labelagaz duten akordioagaz, zapatu iluntzean txahala erreko dute erakustazokan, gero denek elkarregaz afaltzeko. Mas Curva-

Kustomizatutako motorretan adituak direnek euren 'artelanak' erakutsiko dituzte asteburu osoan zehar

seko kideen esanetan, "hemen ohikoa dena Madril, Bartzelona, Kordoba, Marbella, Sevilla eta abarretik etorritako motozaleei oso deigarria egin zitzaien iaz, eta aurten ia denek galdetu dute txahal-erretzerik egingo dugun". ■ J.D.

A-8 autopistako bidesariak %2 igoko dituzte

Aldundiak errepideen azpiegiturasareko zenbait aldetako bidesarien igoera zehazten duen dekretua onartu du. BEZari jarraituz, A-8 Kantauriko Autobidearen (Bilbo-Behebia) azpiegiturak erabiltzen dituzten zenbatekoak %2 handituko dute uztailetik aurrera.

Beraz, Iurretako sarbideko zenbatekoa, 2,09 eurokoa izango da ibilgailu arinentzat eta 4,69 eurokoa astunentzat. Amorebietako sarbidean, berriz, auto arinek 1,15 euro ordaindu beharko dute eta astunek 2,5 euro. Iurretan Ermua arteko tartean ibilgailu arinek 1,25 euro ordainduko dute; astunek 3,54. Amaitzeko, Ermuan sartu eta Gipuzkoara doazen ibilgailu arinek 0,10 euro ordaindu beharko dute.

Bestalde, ibilgailu arina erabilita egiten diren Amorebieta eta Durango edo Amorebieta eta Ermua arteko ibilbideetan teleordainketa erabiltzen bada, ibilbide bakoitzean 0,99 euroko kenkaria ezarriko dute. Zenbateko hori hilero ordainduko da, ibilgailuari dagokion OBE kontuan. ■ J.D.

Iurretako sarbideko zenbatekoa 2,09 eurokoa izango da igoeraren ondoren

San Pedro jaiak ospatuko dituzte Tabiran

Gaur 19:00etan hasiko dira jaiak txupinazoagaz. Ondoren, txalaparta eta tortilla-jana etorriko dira, eta iluntzeko 20:00etan dantzaldia hasiko da Rex taldeagaz.

Zapatu goizean Gaztelu puzgarriak ipiniko dituzte, 10:00etan, eta spinning maratonia, arku tiroketa zein padel txapelketa ere antolatuko dituzte. 11:00etan bikoteen lasterketarako hitzordua ipini dute. Marmitako txapelketa 10:00etan hasiko da.

Gaur 19:00etan txupinazo botata hasiko dituzte jaiak; ondoren, dantzaldia egingo dute Rex taldeagaz

Bazkalondoa mariatxiek alaituko dute. Gero mus, partxis eta zaku txapelketak jokatu dituzte. Gauean kontzertua eskainiko dute Segunda Mano, Yoko Out eta Alerta taldeek.

Domeka artzain-txakur erakustetaz hasiko da, 12:00etan. 13:00etan txahala ipiniko dute burduntzian. 17:00etan dantza erakusketa izango da, eta gero kontzertua musika eskolako ikasleekin. Martitzeneko ekitaldi nagusia meza da, 12:00etan. ■ J.D.

DURANGALDEA

San Joan suen inguruan udari ongietorria egingo dio Durangaldeak

Iurretan, plazan afaldu eta Luhartzek erromeria eskaini zuen; ondoren piztu zuten sua plazaostean

Durangaldeko herriak su txiki-ekin argitu zituzten eguazten iluntzean. Iurretan, esaterako, Luhartzek erromeriaren atsedendian piztu zuten San Joan sua plazaostean.

Elorri San Juan baselizara igo ziren arratsaldean, eta iluntzean hantxe piztu zuten sua.

Eskualdeko gainerako herrietan ere suak egin zituzten. Duran-

gon, ordea, Herria auzo elkar-teak ez zuen surik piztu. Betiko zonaldean "lekurik ez" dagoela diote: "Orain arteko eremu berdeazementuzkoa bilakatu dute". Gainera, "gero eta neurri gehiago bete behar dira segurtasuna bermatzeko". ■ J.D.

> bideoa ikusgai www.anboto.org-en



Iurretan 22:00ak inguruan piztu zuten San Joan sua.

GARAI

Udalekuak martxan astelehenean

Datorren astean, astelehenean, hasiko dira udalekuak Garain. 23 umek parte hartuko dute aurtengo aldian, uztailaren 16ra arte herrian programatu diren ekin-ekin gozatuz.

Hiru eta 13 urte bitarteko umeak izango dira parte-hartzaileak. Garain bertan garatuko dira ekintzak, goizeko 09:00etatik 13:00etara bitartean. Egun batean, baina, hondartzarako txangoa egingo dute, eta arratsaldea ere aprobetxatuko dute, azaldu dutenez.

Sanjuanetako afaria

Sajuanetan murgilduta daude Momoition, eta biharko afarian 60 lagun inguru batuko dira. Ekitaldi ugari eratu dituzte biharko eta domekarako. ■ M.O.

23 umek parte hartuko dute aurtengo udalekuan; hilaren 28tik uztailaren 16ra

Egun batean hondartzarako txangoa eginez, arratsaldea ere aprobetxatuko dute



ATXONDO

Etorkizunerako proposamenak, hirigintza planaren lehen dokumentuan

Herritar guztien iritzia gura dutela azaldu dute udal arduradunek, "plana ahalik eta osoena izateko"

Hainbat inkesta eta batzarren ostean, lehen proposamen bat prest dago. Atxondoko hirigintza plana osatzeko aurrerapen txostena aurkeztu dute asteon. Txosten hori udalaren webgunean jarriko dute laster, eta Udaletxean bertan ere eskuratu ahaliko dute herritarrek. Herritarrek iritzia eta ekarpenak emateko epea laster zabalduko da.

Martitzenean aurkeztu zuen proposamenean hainbat egitasmo azaldu zituen txostena lantzen ibili den talde teknikoak. Besteak beste, Markoidako lurretan 90 etxebizitza -erdiak baino gehiago babesekoak- inguru eraikitzea aurreikusi dute. Apata erdibitzen duen errepidean trafikogutxiago egongo dela aurreikusi dute, Durango-Beasain errepidea egin-

dakoan. Gaur egungo errepideak kale baten antzerako izaera hartuko luke txostenaren arabera.

Kiroldegia eraikitzea eta lursail batzuk industriadako berkalifikatzea ere aurreikusi du hasierako dokumentuak. Artia pareko lursailean, errepidearen beste aldean, bost hektarea eta erdi berkalifikatuko lituzkete industriadaguna egiteko.

Markoidako lurretarako 90 etxebizitza inguru eta berdeguna proposatu dituzte

Iritzia emateko aukera izango dute herritarrek orain. David Cobos alkateak eta talde tekniko kideek nabarmendu dutenez, "hasierako dokumentua horretarako dago, ekarpenak eta aldaketak jasotzeko". Zatikako Lurralde Plana lako erabakiek jarritako mugen barruan atxondar gehien gustuko plana egitea litzateke asmoa. ■ A.U.

Udaletxean eta www.atxondo.net-en eskuratu daiteke hirigintza planaren hasierako txostena

ABADIÑO

Iñigo Lamarca 'Gay nauzu' bere liburuari buruz

Astelehenean, ekainaren 28an, Zelaietako liburutegian hitzaldia eskaintzera dator Iñigo Lamarca EAeko arartekoa. Orain hamaika urte idatzi zuen *Gay nauzu* liburua hartuko du herriaren defendatzaileak azalpenean berbagai: gaztaroan homosexualitatea zelari bizi izan zuen kontatzen du Lamarca liburuan, eta gai horren bultzatzen osatuko du hitzaldia ere.

Udaleko euskara eta berdintasun sailek elkarlanean prestatu dute berbaldia

Ekainaren 28a Lesbiana, Gay eta Bisexualen Nazioarteko Eguna dela gogora ekartzeko helburuagaz, Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailek antolatu duten ekimenetako bat da Lamarca asteleheneko berbaldia.

Astelehenean, 19:00etan hasita, beraz, honezkero beste hainbat udalerritan bezala, bere gaztaroan, bere joera sexuala txarto ikusita zegoen garaian, homosexualitate izatea zelari bizi izan zuen kontatuko du Lamarca. ■ I.E.

IURRETA

Beresiko aisialdi gunea handitu eta atontzen

Uztailaren lehenengo asteetarako amaitzeko helburuagazekin diete Beresiko hariztarian aisialdi gunea handitzeko lanei: iazko udatik erabilgarri izan diren bost erretegi guneen aldamenen erretegi berri bi eta mahai eta jesarleku gehiago ipiniko dituzte. Udalean diotenez, iaz gunea atondu zutenetik "arrakasta itzela" izan du Beresiko guneak iurretaren artean, eta zenbait egunetan gerturatu zen jende guztia hartzeko besteko lekurik ez zegoen. Horrenbestez, 58.000 euroko inbertsioa egingo du udalak gunea handitzeko.

Bestalde, uda honetarako, Arriandi auzoan, Ibaizabal erreka aldamenen dagoen beste berdegune bat ere aisialdi gune legez prestatzeko lanak burutuko dituzte, udan atsedean eta elkarleku moduan erabili ditzaizen herritarrek. ■ I.E.

Atsedenekuaren iazko arrakasta ikusita, handitu egingo dute uda honetarako



Lokalean taberna, jatetxea eta denda atondu gura ditu Atxondoko Udalak

Epaileak Anbotopek lokala utzi egin behar duela esan du

Udalaren eta elkartearen arteko kontratua amaituta dagoela dio sententziak

Anbotope elkarteak Arrazolako lokala uztailaren 13a baino lehenago utzi behar duela dio udalagaz edukitako epailetaren sententziak. Joan den asteko barikuan eman zuen Durangoko Epaitegiak epaiaren berri. Udalagaz edukitako arrendamendu kontratua epe kanpo dagoela dio sententziak; Anbotopek errekurtsioa jarri du.

Udalak Anbotoperi Arrazolan daukan lokalaren kontratua amaitu zitzaioela eta, lokala uzteko eskatu zion 2008an, baina Anbotopek horren kontra egin zuen. Lokala uzteko jakinarazpenean bertan "irregulartasunak" zeudela uste zuten, eta elkarte kideek justiziara jo zuten bere garaian. Udalak, bere aldetik, kaleratze demanda jarri

Arrazolan aterpetxea zabaldu gura du Udalak; soziedadea taberna, jatetxe eta denda bihurtuko litzateke

zien, eta salaketa horren gaineko epaiketa irabazi berri du. Anbotopeko kideek lokalean jarraitzeko ahaleginak egingo dituztela azaldu dute: "Soziedade moduan jarraitu behar dugula uste dugu, eta aurrera jarraitzea besterik ez dugu".

David Cobos Atxondoko alkateak azaldu duenez, arrendamenduaren kontratua azkenean 1986an luzatu zuen udalak, eta 1996tik kontratu finko barik egon dira: "Epe hori pasatuta, jabeak erabakitzen du kontratua noiz eten, eta guk etetea erabaki dugu". Errekurtsoagatik gauzak atzeratzen badira, ez duela inporta dio Cobosek: "Ez dugu

presarik eurek lokala uzteko. Udalak garbi jokatu duela argi gertatzea da gura duguna".

Aterpetxerako taberna

Anbotope azken 30 urteetan egon den lokalean etorkizunean taberna bat jartzea da Atxondoko Uda-

laren asmoa. Orain atontzen dabilzan etxe sozialen azpian aterpetxea zabaldu gura du udalak. Aterpetxe horretara doazentzako eta Arrazolako auzokideentzako taberna, jatetxea eta denda jarriko lituzke udalak orain arte Anbotope egon den lokalean. ■ A.U.



professional learning space

HEZKUNTZA MASTERRAK

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa.

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasunetan Masterra (EKOMU).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko Unibertsitate Masterra.

Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan Masterra.

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Dorleta z/g, 20540 Eskoriatza / Tel. 943 71 41 57

www.mondragon.edu/muplus/hezkuntza

OTXANDIO

Urduri dantza taldeak 50. urteurrena ospatuko du bihar

Zapatuan, 19:00etan, hainbat belaunalditako 200 dantzarik dantza saioa eskainiko dute plazan

Urduri dantza taldeak mende erdia bete du, eta zapatuan egun osoko jaia eginez ospatuko dute sortu zireneko 50. urteurrena.

Eguerdian antolatu dute lehenengo ekitaldia. 12:00etan, plaza-irtenda, kalejira antolatu dute. Hainbat belaunalditako txistulariek girotuko dute herri osoari emango dioten itzulia. Ondoren, 13:00etatik 15:00etara Urduri dantza taldearen historia argazkitan batzen duen erakusketa ikusteko aukera egongo da bolatokiko gela berrian. Guztira, 125 argazki ipiniko dituzte. Printzipioz, erakusketa bihar bakarrik zabalduko dute, baina jendeak interesa erakusten badu igandean ere zabalduko aukera ez dute baztertu.

Jaiak 18:30ean jarraituko du. Orduan, Andresa Landatik irtenda beste kalejira bat egingo dute

hainbat belaunalditako dantzariekin. 19:00ak inguruan dantzari guztiak plazan batuko dira eta hainbat dantza erakutsiko dituzte. Guztira, 200 dantzari inguru batzea aurreikusi dute. Edadetuenak 70 urtetik gora izango ditu, eta gazteenak bost bakarrik. Amaitzeko, 21:30 inguruan, plazan herri-afaria egingo dute —350 lagun inguru batuko dira— eta erromeriak giroa alaituko du.

Gauegun, Urduri dantza taldean 65 gaztetxo inguruk egiten dute dantza. Txistulari eta kudeketa lanak egiten beste 10 bat lagun ere badabilta. ■ J.D.

Iluntzean herri-afarian batuko dira, eta ondoren erromeria eskainiko dute



Dantza erakustaldiaren aurretik kalejira egingo dute, Andresa Landatik irtenda.

Barnetegi Ibiltariari ondoetorria egingo diote

Uztailaren 4an AEK-ko Barnetegi Ibiltaria helduko da, eta Berbalaguneko kideekin afalduko dute

Datorren asteko domeka arratsaldean AEK-ko Barnetegi Ibiltaria Otxandiora helduko da, eta herriko Berbalaguneko kideek ondoetorria egingo diote. Ondoren, Kultur Etxean ipuin musikatuekin

Berbalagunek lehenengo urtean izan duen harreragaz pozik daude antolatzaileak

osatutako ordubeteko saioa eskainiko dute. Ordurikezin dute zehaztu, ez dakite-eta Barnetegi Ibiltaria zer ordu zehazetan helduko den Otxandiora. Ondoren, Berbalaguneko kideek afaria prestatu eta

denek batera Kementsu elkartean afalduko dute.

Berbalagunek harrera ona

Aurten lehenengo aldia du berbalagun ekimenak —AEK-k antolatuta—, eta antolatzaileak gustura daude izan duen harrerarekin. 12 lagunek eta hiru taldek dihardute ekimenean. Orain arte irteera bat baino gehiago egin dute. Esaterako, La Bastidako ardotegi batera joan ziren, eta han bisita gidatua euskaraz izan zuten. Otxandio inguruko harroketara ere joan dira eskalatzera.

Uztailean amaituko da ekimena, eta datorren urtean ere antolatzeko asmoa daukate. ■ J.D.

Jolas Eguna eta pultsu lehiaketa astelehenean

Euskara Batzordeko gurasoen lan-taldeak antolatu du aurten bigarren aldia duen ekimena



laz hainbat gaztetxok parte hartu zuen ekimenean.

Euskara Batzordeko gurasoen lan-taldeak II. Jolas Eguna antolatu du ekainaren 28an, 18:30ean, herriko plazan.

Egingo diren jolas denak gurasoen lan-taldeak Otxandion batutakoak dira, eta hauek dira horietako batzuk: kromoak, txapak, *Bat bi hiru*, *Karabin bon ban!*, arkuak eta geziak, *Txorro morro piko taio ke!*, *Piojo verde!*, sokasalto, goma, iturriak, painuelitoka, kanikak eta tronpak.

Joko horiez gainera, pultsu lehiaketa ere antolatu dute. Pultsu lehiaketan parte hartzeko aukera adin guztietako jendeak izango du, gaztetxoek zein nagusiek. Pultsu lehiaketako irabazleak diploma eta sari bat jasoko du. Izena egunean bertan eman beharko da. ■ J.D.

18:30etik aurrera hainbat jokotan parte hartzeko aukera eskainiko dute



• TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen du.

• CAP ikastaroak profesionalentzat

• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO



INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

Ikasketa Berriak zure Etorkizunerako



e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com

Tel.: 94 673 02 51

Goi mailako zikloak

- Informatika-aplikazioen garapena
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako zikloak

- Merkataritza
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
- Soldadura eta galdaragintza
- Mikroinformatika eta sare sistemak

**Ziklo guztiak Euskaraz
eta Gaztelaniaz**

Datak

Matrikula: Uztailak 7tik 13ra



MAÑARIA

Auzitegi Gorenak gaitzetsi egin du Zalloventaren azken helegitea

"C" motako ustiapenerako baimena eskuratzeko asmoz aurkeztu zuen Zalloventak helegitea

Zalloventa harrobiaren auzian, 2004. urtean Eusko Jaurlaritzak harrobiari aitorturiko "C" klasean jarduteko baimena behin betiko baliobakotu du joan zen astean Auzitegi Gorenak argitaratu zuen sententziak. Harrobiaren ustiapena zabaltzea zekarren birkalifikazioaren kontra herritar talde batek orain bost urte aurkeztu zuten helegiteak berretsi ditu epaitegiak.

Harrobia kudeatzen duen enpresak azkeneko aurkeztu zuen helegitea ez du Auzitegi Gorenak aintzat hartu

Orduko Jaurlaritzak egindako ustiapenaren birkalifikazioa bertan behera uztea eskatzen zuten herritarrek helegiteetan. Joan den astean Auzitegi Gorenan Zalloventa enpresak birkalifikazioa baimendu diezaioten aurkeztu zuen helegitea gaitze-

tsi dute, beraz, 2007an kaleratu zuten sententzia berretsiz.

Sententziaren berri komunikabideetara zabaldu duen herritar taldearen berbetan, "harrobia erabat legez kanpo gelditu da sententzia hau eta gero", eta diotenez, "jarduera behin betiko utzi behar du harrobiak, ez baitu jarduera jarraitzeko legezko baimenik".

Herritarron ustez, Zalloventa harrobia "12 urtean trikimailu legalak baliatzen aritu da, eta gero-epaitegiek legez kanpoko deklaratu dituzten baimenetan oinarritu du bere jarduna".

Gaurko egoerara heltzeko lau epai judizial, Batzar Nagusietan zein Eusko Legebiltzarrean ez legezko hainbat proposamen eta, eta "herritar askoren dirua, lana eta denbora behar" izan dela ere, ekarri gura izan dute herritarrek gogora. Azken sententzia honen ostean ere, harrobiak bere jarduna "berehala etetea" eta ingurua lehengoratzeko plana martxan ipini dezala eskatu dute. ■ I.E.

Kirikiño abesbatzaren 25 urteak oroitu eta ospatu zituzten joan zen zapatuan

Andra Maria elizan, Kirikiño abesbatzaren mende laurdena ospatzeko kantaldi berezia egin zuten

Joan zen zapatuan egin zuten Kirikiño abesbatzaren mende laurdena ospatzeko emanaldia, Andra Maria elizan. Guztira, 31 emakume abeslari batu ziren zapatu iluntzeko emanaldi hartan. Taldearen mende laurdeneko historian parte hartu duten abesbatzako kideak eta gaur egun ere badiharduten

emakumeak elkartu ziren elizaren aldarean kantatzera. Orain urte asko ikasitako kantak berreskuratuz zituzten, eta gaur egungo astelehenetako entseguetan lantzen dituztenak ere eskaini zituzten txistuagaz eta organuagaz lagunduta. Asko eskertu zituzten entzuleen eskutiko txaloak. ■ I.E.



Zapatuko emanaldian hartutako argazkia.

BERRIZ



Iturriza kalean egongo den musika etxeko lanak ez dira aurten hasiko.

Musika etxea egituratu dute herriko taldeen iritzia jasota

Musika etxeak lau gela izango ditu, bat tamaina handiagokoa

Berrizko musika etxearen proiektua uda inguruan amaituko dute, baina lanak ez dira datorren urte arte hasiko. Jabier Azpitarte Berrizko alkateak adierazi duenez, proiektua egin eta "kaxoian prest" egongo da: "Lanak 2011n hasi daitezke".

Musika etxea Iturriza kalean egongo da, eta denera, proiektuan jasotzen den moduan, 175 metro karratu izango ditu. Jabier Azpitarte Berrizko alkateak azaldu duenez, "lokal argi eta sinplea da", musika etxe moduan erabiltzeko "aproposa". "Espaloi ondo-ko horma osoa beirate handi batek osatzen du, eta bertatik kanpoko argi naturala aprobetxatuko dugu". Barruan, guztira lau

gela izango ditu; hiru 25 metro karratukoak, eta laugarrena handiagoa, 40 m²koa, alkateak adierazi duenez: "Bi talde edo korok entseatzeko aukera interesgarria". Korridorean gelen aurrean hiru

Proiektua "kaxoian prest" egongo da; eraikitze lanak 2011n hasi daitezke

kutxatilatagi ipiniko dituzte, "musika tresnak gordetzeko".

Proiektua aurrera eramateko herriko musika taldeen ekarpenak jaso dituzte. Garrantzia berezia ematen zioten intsonorizazioari eta gelen tamainari. Alkateak azal-

du duenez, intsonorizazioaren inguruan bi alderdi hartu dira kontutan material eta estruktural aukeratzeko orduan: "Bat soinua kanpora ez irtetzeko edo gela bate-tik besterako eragozpenik ez egoteko, eta bestea gela barruan soinu egokia izateko, oihartzunik gabea".

Alkateak azaldu duenez, zarata kanpora irten ez dadin, gelak ez daude espaloi ondoan, beste aldean baizik, lurraren ondoan. Sarreran komuna eta aldagela ipiniko dituzte. ■ G.A.

Intsonorizazioa bermatuta dago; "bai kanpoko bai gela barruko soinu egokia"

IZURTZA

ADIFeko arduraduna eta Udala batzartuta

AHTaren tunela egiteko leherketek hainbat arrakal eragin dute herriko bost baserritan

Orain hilabete batzuetatik hona Durangoko mugan Abiadura Handiko Trenaren tunela egiteko burutu dituzten leherketen ondorioz, arrakalak agertu dira inguruko hainbat etxetan. Azken hilabeteetan udalean euren kexak jakinarazi dituzten kaltetutako izur-tzarren eskariak bildu eta ADIFen arduradunagaz egin duten batzar-rrera eraman dituzte udal ordezkariak: leherketek bost baserritan eragin dituzten arrakalak erakusten dituzten argazkiak obraren arduradunari helarazi dizkiote.

Batzar berean bestalde, AHTa eraikitzen diharduen ADIF enpresaren seguruko perituagaz batera, udal arkitektoa ere kalteak neurtzen dituztenean bertan egotea adostu dute udalak eta enpresaren ordezkariak. Eragindako kalte guztiak enpresak bere gain hartzea ziurtatzea dutela helburu azaldu dute udal arduradunek.

Tunela eraikitze leherketak gauez egin izanak eragindako zarataren inguruko kexa ere mahaigaineratu zuen Udalak eguazteneko batzarrean. ■ I.E.

MALLABIA

Jubilatuek Arnedo bisitatuko dute

Mallabiko jubilatuek elkarrekin uztailearen 3an Arnedora egun osorako irteera antolatu du. Eki-menean izena emateko azkene-ko eguna ekainaren 27a da.

Autobusa 08:30ean irtengo da Mallabitik. Herrira heltzean hamarretakoa egingo dute, eguna ondo hasi ahal izateko. Bertako inguruak ezagutzeko denbora izango dute irteerara apuntatzen direnek. Ondoren, bidaiako taldea Zientzia Museo-ra joango da. Bazkaritan, atsedenaldia egingo dute indarrak ber-ritzeko. Hain ezagunak diren oi-ne-takoen biltegiak ikustera joango dira jarraian, gura duenak erosketak egin ahal izateko.



ELORRIO

850.000 euro kiroldegia eta 'Txantxibiri' eraberritzeko

lazko soberakinetatik diru atalak bideratu dituzte hainbat proiektutara

Azken udalbatzarrean iazko soberakinetako diru zati bat aurten gauzatu beharreko hainbat proiektutara bideratzea onartu zuten. Atalik handienak kiroldegia berritzeko lehen faserako eta Berrio-Otxoa kaleko —Txantxibiri zonaldea— erreku-perazio lanetarako dira.

Kiroldegia eraberritzeko lehenengo fasean igerilekuko aldagelak egokituko dituzte

Kiroldegia eraberritzea hiru urtetan gauzatu gura duten asmoa da, eta aurtengo lehenengo fasean igerilekuko aldagelak eta gimnasioa berriztatuko dituzte, 344.000 eurogaz. Aldageletan dutxa kopurua gehitu dute, eta elbarrientzako egokituko dituzte. Horrez gainera, aldageletako eta gimnasio hormak eta zorua berriztatuko dituzte. Lanak aurten hasi eta

amaituko dira, eta abuztuan hasia gura dute kiroldegiko erabiltzaleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko.

Berrio-Otxoa eta Otsa kalea batzen diren zonaldea urbanizatzeko 500.000 euro erabiliko dituzte. Lanak irailan hasiko dituzte, Ferixa Nausiko jaiak amaitu ondoren. Horrela, Txantxibiri deitzen dioten inguruko urbanizazio lanak amaituko dituzte.

10.500 euro erabiliko dituzte Ibaikua kalean gaineko pasabidea egiteko. Elizalde futbol zelai-ko atea ere aldatuko dute 4.600 eurogaz, eta kiroldegiko pilotalekuko hodia konpontzeko 6.400 euro erabiliko dituzte. ■ J.D.

Kiroldegiko lanak abuztuan hasi nahi dituzte, bertako erabiltzaleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko

DIRU ATAL BATZUK

Berrio-Otxoa kaleko urbanizazioa:
500.000 euro

Kiroldegia eraberritzea (lehenengo fasea):
344.000 euro

Ibaikua kaleko errepidean gorunea egitea:
10.400 euro

Kiroldegiko pilotalekuko hodia konpontzea:
6.400 euro

San Juan kalean 10 babes-zutain ipintzea:
5.400 euro

Elizalde futbol zelai-ko atea aldatzea:
4.600 euro

Garratzeko ur biltegirako bidea garbitzea:
2.600 euro



Txantxibiri esaten dioten zonaldea erreku-peratu gura dute.

Udalaitz babestutako gune bihurtzeko mozioa

Ezker Abertzalea eta EHaren botoekin onartu zuten proposamena; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren

Joan zen asteko udalbatzarrean, hirigintza eta ingurumen batzordeak proposatuta, Eusko Jaurlaritzari Udalaitz esparrua babestutako biotopo bihurtzea eskatzeko mozioa bozkatu zuten. Proposamena Ezker Abertzaleko eta EHAko zinegotzien aldeko botoekin onartu zuten.

EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren. Alderdi Sozialistako Mari Carmen Muñozek irakurketa bi egin zizkion proposamenari. Bate-tik, intereseko inguruneak "babestearen eta zaintzearen alde" dagoe-la adierazi zuen, baina, bestetik, alde ezkutua ikusi zion proposamenari: "AHTaren lanak oztopa-

tzeko ez ote den errezeloa dut". Niko Moreno alkateak erantzun zionez, "ez dago ezelako alde ezkuturik, eta orain Eusko Jaurlaritzari dagokio proposamena onartuko duen ala ez eztabaidatzea".

EAJko Ana Otadui Arrasateko Udalean ere tratatutako proposamena dela gogoratu zuen, eta hango jeltzaleak legez abstenitu egingo zirela. ■ J.D.

PSE-EEK errezeloa du proposamena ez ote den "AHT oztopatzeko" asmoz egin

Hamargarren aldia izango du bihar Azoka Kulturalak

Sasoi bateko, liburu, disko, zigilu eta abarrekin, bildumagileek hartuko dute plaza ingurua



Guztira, 20 bat stand egongo dira Udaletxeko plazan.

Musikaire egitarauari hasiera emanez, zapatuan Azoka Kulturala antolatu dute Herriko Plazan. 09:00etatik 14:30era arte, 20 bat stand atonduko dituzte Udaletxeko eta elizako arkupeetan. Guztira, 20 bat stand egongo direla aurreikusitako antolatzaileek.

Ohi legez, Elorrioko zein Euskal Herri osoko bildumazaleak—Bilbo, Donostia eta Gasteizkoak, besteak beste— etorriko dira Elorriora, eta mota guztietako bildumak ipiniko dituzte salgai: liburuak, diskoak, mineralak, zigiluak...

Gainera, 12:00etatik aurrera, antzinako motorren topaketa egingo dute plazan, eta 40 bat motor batzea itzaroten dute, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritakoak.

Ekimenaren antolatzaileetako bat den Agustin Urizarren esanetan, "azoka klasiko bat bihurtu da Elorrian, eta jende asko etortzen da zer edo zer erostera edo postuak ikustera". ■ J.D.

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

pasquali

ZALDIBAR



Ezker Abertzaleak joan zen zapatuan deitutako kontzentrazioan 161 herritar batu ziren.

Lauburu berriz margotuko dutela adierazi du alkateak

Ezker Abertzalek egin zuen protesta "polemika antzua" dela dio alkateak

Idoia Mendiolagaray Zaldibarko alkateak ohar batean adierazi duenez, lauburu berriz margotuko dute Solobarriako futbol zelaian, Udaleko armariagaz batera. Lauburu ezabatu izana "behin-behineko" erabakia izan dela esan du, "inongo helburu politikorik barik" hartutako neurria. Udalak Solobarriako ornamentazioa osatzeko proposamen bat jaso eta baimendu eizuen Udalak, "ez zuelako kosturik eta biztanleei udaleko ekintzetan parte hartzeko aukera emateko politikari jarraituz".

Lauburu ezabatzea, "behin-behineko" erabakia izan da, "helburu politikorik barik"

Herritar batzuek kaleetan lauburuak margotu izana salatu du alkateak

Alkateak dioenez, laburuaren "behin-behineko ezabatze" baten kontra joan zen zapatuan egin zen kontzentrazioa "polemika antzua" da, izan ere, Mendiolagarayk gaineratu duenez, lauburu "euskaldunon sentsibilitate guztiak ordezkatzen dituen ikurra da, baita beste kultura batzuetako jendearena ere".

Bestalde, alkateak, "herritar batzuek kaleetan lauburuak margotu izana" salatu du: "Hormetan egiten diren pintadak kostu ekonomikoa dute, eta azkenean herritarrek pairatzen dute". ■ G.A.

Eitzagako jaiak gaur hasiko dira, egitarau zabalagaz

Eitzaga auzo elkarteak ekitaldi ugari antolatu du auzoko jaietarako. Txopoa gaur altxatuko dute

Zaldibarko Eitzaga auzoko jaietan ekitaldi ugari antolatu du Eitzaga auzo elkarteak, gaur hasi eta martitzenera arte.

Gaur arratsaldeko 18:00etan haurrentzako marrazki-idazlan lehiaketa egingo dute, eta ordu-bete geroago, txokolatada herrikoia izango da parkean. Ondoren, txopoa altxatuko dute, arrataldeko 19:30ean. Gaueko 21:30ean, lagunarteko jai-afariagaz amaituko dute eguna.

Zapatuan lehiaketekin hasiko dute eguna 12:30ean; paella eta tortilla lehiaketagaz, hain zuzen ere. 14:00etan sari banaketa eta amaieran herri-bazkaria izango da. 18:00etan bolo jaurtieragaz

Zapatuan paella eta tortilla lehiaketekin hasiko dute eguna, ondoren, herri-bazkaria ere egingo dute

hasiko dute arratsaldea, eta ondoren bolo txapelketan parte hartzeko aukera izango da, 7 euroren truke. Arratsaldeko 20:00etan izango da sari banaketa, eta honen bitartean saiheski herrikoia izango dute.

Domekan, 12:30ean, San Pedro ermitan meza nagusia izango da; gero ardo eta gailera banaketa. 13:45ean Ermuko Txindurri dantza taldearen ekitaldia, parkean. 18:00etan asto probak eta 20:30ean errifa zozketa.

Martitzenean, San Pedro deuna egunean, nagusiei omenaldia egingo diete. Arratsaldeko 19:30ean, San Pedro ermitan meza egingo dute, hildakoen omenez. Jaiei amaiera afari eder batez emango diete; 21:00etan izango da, Eitzaga auzo elkarteak. ■ G.A.

DURANGO

Virumbralesek eta Martinezek "borrokaldia"-n jarraitzen dute

Euskal preso politikoei "borrokaldi iraunkorra"-ren bigarren txanda hasi dute. Tartean dira Asier Virumbrales—Castelloko Albocasser kartzelan— eta Leire Martinez—Zaragozako Zuera kartzelan— preso durangarrak. Virumbralesen kartzelan, maiatzean eta ekainean launa eguneko bi itxialdi burutu zituzten; ekainaren 4an, 11n eta 25ean baraualdia eta enkartelada egin zituzten. Martinezen kartzelan, ekainaren 5ean komunikazio greba egin zuten. Ekainaren 19an espetxeko janariari uko egin zioten eta, zapatu honetan, zuzendariari instantziak bidaliko dizkiote. Gaur, 20:00etan, ostiralero legez, elkarretaratzea egingo dute Ezkurdin, presoek eskubideen alde.

DURANGALDEA

Tortura salaketa berretsi du Adur Aristegi elorriarrak

Adur Aristegi elorriarra otsailean atxilotu zuten, Katalunian, eta Guardia Zibilak torturatu egin zuela adierazi zuen. Operazio berean atxilotutako beste hiru pertsonagaz batera, Madrilgo Auzitegi Nazionalan izan zen astelehenean Aristegi. Otsailaren 17an atxilotu zuten Kataluniako polizia autonomikoak, beragaz zihoan Jon Rosalesegaz batera. Inkomunikazio garaian jasotako torturak salatu ditu berriro ere epailearen aurrean.

Bestalde, Alaitz Areitio iurretarrari bost urteko kartzela zigorra ezarri dio Parisko auzitegiak asteon, "ETAko kideak hezi eta formatzeagatik". Aurretik ere badu beste zigor bat Alaitz Areitio, 17 urtekoa; kasu horretan "tiroketa batean parte hartzea" leporatu diote.

Kartel lehiaketak martxan dira Iurretan eta Elorrion



Sanmigeletarako eta Ferixa Nausikoetarako aurkeztu diren lanekin erakusketak atondu dituzte kultur etxeetan. Iurretan bederatzi lan daude ikusgai, eta bariku honetan amaitzen da botoa emateko epea. Bere iritzia eman gura duenak 18:00etatik 19:00etara bitartean egin beharko du, Ibarretxean.

Elorrion 14 lanen artean aukeratu daiteke, Iturri kultur etxean. Uztailean 10a izango da botoa emateko azken eguna. Ondoren, epaimahaiak, jendearen iritzia kontuan hartuta, irabazlea aukeratu du; udal ordezkariak, jai batzordeko kideak eta arte grafikoetan adituek osatuko dute epaimahai hori.

MALLABIA

Goietako auzoko jaiak asteburuan

Gaur, 21:00etan, herri-afarian batuko dira, eta ondoren Beñat Ugartetxea eta Julen Sololuze bertsolariek saioa eskainiko dute. Bihar, 18:00etan, briska eta tute txapelketak jokatu dituzte, eta 22:00etan asto probak ikusi ahalko dira Irazola, Amesti eta Aterpe Aroztegiaren astoekin. Ondoren, adar eta 'ijuilari'-en txapelketa egingo dute.

Domeka eguerdian herri-kirolak egongo dira: Zelai II.a eta Jabi aizkolariak, eta Zelai III.a, Zelai IV.a eta Garitagoitia harri-jasotzaileak. 17:30ean bola txapelketako sariak banatuko dituzte (Bizkaiko txapelketarako puntuagarria da).

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

BERBAZ >

“Talentedun gazteei zuzendutako Izarren Distira showa antolatuko dugu”

Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz ekimen ugari jarriko ditu martxan Amankomunazgoko euskara zerbitzuak

Amankomunazgoak euskara zerbitzuari bultzada eman gura diola azaldu digu Nerea Zubia Elhuyar Aholkularitzako euskara teknikariak. Zerbitzua iaz jarri zuten martxan. Aurten fase berri bati ekin diote, baliabide gehiagorekin.

Noiz jarri zenuten martxan euskara zerbitzua?

Amankomunazgoak hainbat urtean ahaleginak egin ditu zerbitzu hori egonkortzeko, baina hainbat kontuzirela-eta etenak egon ziren. Benetak bultzada bat emateko asmoz, 2009an zerbitzuaren kudeaketa lehiaketan ipini zuten, eta lehiaketa horren ondoren Elhuyar Aholkularitza Zerbitzuari eman zioten lana, eta teknikari lanean hasi nintzen, astean hamar orduz. Orain baliabide gehiagogaz beste fase bat martxan jarri dugu.

“Berbalaguni Durangaldeko ikuspegia eman gura diogu”

Zelan joan zen aurreko fasea?

Helburuak bete ziren, eta urte bukaerako balorazioa oso ona izan zen. Kontuan izan behar dugu Amankomunazgoko herrietako euskara zerbitzu bakoitzaren egoera oso desberdina dela. Batzuetan badago euskara teknikaria, beste batzuetan ez dago. Lorpen handiena gune bat sortzea izan da, herrietako teknikariak bilduz, elkarren berri izateko eta norabideak finkatzeko.

Zer ekintza mota antolatu izan duzue.

Matrikulazio kanpainan, irailean eskalategien, AEKren eta hizkuntza eskolaren kanpainaren osagarri, gida bat kaleratu genuen euskara ikasteko bideak eta diru-laguntzak azalduz.

Batzordea ere sortu duzue.

Lehenengo hileetan dezente biltzen ginen. Hilero bilerak egiten ditugu.

Fase berrian zer helburu daukazue?

Dedikazio aldetik apustu handiagoa egin dute, eta, astean lau egunez nagoenez, aukera ematen du esparru gehiagotara heltzeko. Iazko moduan herrira begirako egitasmoekin jarraituko dugu. Aurten gida zabaldu egingo dugu hainbat adinetako jendearengana heltzeko. Amankomunazgo barrurako Euskararen



Nerea Zubia •

- Amankomunazgoko euskara teknikaria da
- Elhuyar Aholkularitza

“Herrietan euskara arloan egiten den lanari etekina atera nahi diogu”

izango dute bakoitzak bere abilitateak denon aurrean erakusteko. Durangaldeko jende ezaguna izango da epaimahaian, eta festa bat izango da.

Aisialdiko begirale ikastaroa ere antolatuko duzue.

Aisialdirako begirale ikastaroa Amankomunazgotik bideratuko dugu. Durangoko jaien ondoren, martxan jarriko dugu, urrian. Amankomunazgoak hartuko du bere gain matrikulazio osoa.

Berbalagunen ere lan egin gura duzue.

Berbalagunak bere bidea egina dauka; batez ere, Durangon, Zaldibarran eta Elorrioren oso egonkortuta dago. Abadiñon ere aurten martxa politean dabil, baina badaude herri txikiagoak taldeak sortzeko zailtasunekin. Ondoko herrietara bideratzeko moduak topatzen gabiltza. Iurretan ere martxan jartzeko ahalegin berezia egingo dute. Durangaldeko ikuspegia emateko hainbat ekintza bateratu egiten ditugu, diaporama emanaldiak eta ikastaroak, esate baterako.

Webgunea ere prestatuko duzue.

Euskara ikasteko baliabideen gida iaz buzoneatu genuen Durangaldean, baina indar berezia emateko asmoz webgunea martxan jartzea erabaki dugu. ■ Jone Guenetxea

“Eskualdean, Euskal Herrian orokorrean gertatzen den moduan, ezagutza mailatik erabilerara salto dezentekoa dago”

Erabilera Plana martxan jartzea asmoa daukagu.

Hainbat herritan badago Euskara Plana. Garrantzia handia ematen diogu herrian orain arte egin den lanari. Lanak ez ditugu bikoiztu gura. Gura duguna dagoenari etekina ateratzea da. Denon artean gauza berriak sortu eta batak besteari inertiak aprobetxatzea da asmoa.

Euskararen egoera zelan baloratzen duzue eskualde mailan?

Eskualdean, Euskal Herrian orokorrean gertatzen den moduan, ezagu-

tzatik erabilerara salto dezentekoa dago, eta erabilera sustatzea eragin esparru zailena izaten da. Gaitzera gazteengan eragitea da. Ikastetxetan D ereduak indar handia duen arren, urteek aurrera egin ahala, adin bat heltzen da, moda kontuak edo dena delakoa dela, erabileran gaztelerarako joera handia dena.

Gazteei zuzendutako ekimenen bat antolatuko duzue.

Izarren Distira izeneko egitasmoa azaroan martxan jarriko dugu. Talentu show bat da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Aukera

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Durangaldeko gehiengo sindikalak greba deitu du

Durangaldetik, oraingoz, 120 enpresa komite eta enpresa delegatu atxiki dira ekainaren 29ko grebara

Durangaldeko gehiengo sindikalak prentsa aurrean adierazi duenez, oraingoz, Durangaldetik 120 enpresa komite eta enpresa delegatu atxiki dira gehiengo sindikalak ekainaren 29rako deitu duen greba orokorra; horien artean, Sabeco, Smurfit Nervión, Estampaciones Bizkaia eta Durango zein Zornotzako udalak, besteak beste.

Sindikatuek "beharrezko" ikusten dute beharginak eta Euskal Herri osoa kalera ateratzea, lan erreformak biltzen dituen "neurriei aurre egiteko eta politika sozial eta laboralak Euskal Herrian erabaki behar direlako". Durango 17:30ean Andra Marian hasiko da manifestazioa, eta Elorrión 19:00etan plazatik irtengo da.

Durango eta Elorrión egingo dute manifestazioa, arratsaldean, ekainaren 29an

Gehiengo sindikalak espainiar gobernuak mahaigainean ipini duen lan erreforma "bertan behera uztea" exijitzen du, "kaleratzea erraztu eta merkatu" egiten duelako. Izan ere, "legea aldatzen du, orain arte kaleratze bidegabeak zirenak bidezko eta objektibo bihurtu daitezkeen". Honela, "lan egindako urteko 45 eguneko kalteordaina (gehienez, 42 hilabete adinakoa izan zitekeena) 20 egunera jaisten da, eta gehienez urtebete adinakoa izango da".

Gainera, lan erreformak hitzarmenak ez betetzeko bidea irekitzen du; negoziazio kolektiboari eraso egiten dio, enpresen akordio sindikalik gabe hitzarmeneko baldintzak (soldata, ordu-



Durangaldeko gehiengo sindikalak egunean egin zuen prentsaurrekoa.

tegiak, funtzioak...) aldatu baitutzake, eta hori "atzerapausu handia da" sindikatuen ustez.

Bestalde, "tamalgarrria da Aldi Baterako Lan Enpresei (ABLE) ematen zaien garrantzia", izan ere, "Euska Herriko lau miloi langabetuen lan-bilatzea, onurak lortu gura dituzten enpresen esku uzten dutela diote". Horrez gainera, ez duela "enplegu prekarioagaz amaituko", eta "gazteekin figura prekarioak erabiltzen jarraitu ahal izango dute", diote sindikatuek.

Lan erreformaren edukia "gero eta latzagoak" izan daitezkeela dio gehiengo sindikalak. ■ G.A

> bideoa ikusgai www.anboto.org-en

> ELORRIO

Elixeko beharginek greba mugagabea egitea erabaki dute

Enpresa eta sindikatuak eguaztenean batzartu ziren konbenio kolektibo negoziatzeko

Elix metal arloko Elorrioko enpresan beharginek 24 orduko greba egin zuten, egunean, ELA eta CCOO sindikatuek adierazi dutenez, "enpresaren aldetik ez dutelako mugimendurik ikusten" iazko eta aurtengo konbenio kolektibo negoziatzeko orduan.

"Enpresaren egoera aldatu da, eta gurea dena eskatzen dugu", diote sindikatuek

ELAk azaldu duenez, "iaz beharginek ez zuten ez soldaten igoerarik ez konbeniorik eduki" enpresa Lan Erregulazio Espedientean zegoelako, baina gaur egun, sindikatuek diotenez, "egoera aldatu eginda: "Gurea dena eskatzen dugu; 2009ko soldaten igoera eta atzeratutako ordainketak eguneratzea eta aurtien KPI-

ren igoera eta puntu eta erdia". Eguaztenean beharginak eta enpresa lehenengoz batzartu ziren konbenioa negoziatzeko. Gehiengo sindikala duen CCOO adierazi duenez, enpresaren azken proposamena "guk eskatzen dugunetik urrun dago, baina negoziazioaren bidea zabaltzen dugu behintzat". Sindikatuek diote orain beharginen asanbladan erabakiko dutela mobilizazioen egutegia zein izango den.

Enpresak egoera txarrean dagoela argudiatzen duela diote sindikatuek, baina ELAk dioenez, ez dute konturik erakutsi.

ELAk adierazi duenez, beharginek atzo egin zuten asanbladan uztailaren 1etik greba mugagabea egitea erabaki dute, enpresaren aldetik "mugimendurik ez bada". Enpresak bileran egin duen mugimendua "oso eskasa" iruditu zaie beharginen. Beraz, "pilota enpresaren teitlatuan dago". ■ G.A

■ kolaborazioa



Roberto Martin
CCOO sindikatua

Greba orokorra: langileen eskubideak

CCOOn ustez, Gobernuaren dekretuak argi islatzen ditu negoziazioen haustura eragin duten enpresa aldarrikapenak, eta horregatik gaitzesten du. Dekretuak langileen kaleratzea merkatzen eta errazten du, aldi baterakotasuna handitzen du, eta arriskuan jartzen ditu negoziazio kolektiboaren elementu garrantzitsuak, enpresariaren alde bakarrek boterea handiagotuz eta langile guztien eskubideak kaltetuz.

Jada egia bihurtu da pentsioen erreforma erregresiboarekin aurrera egiteko mehatxua. Honen guztiaren oinarrian dagoena da nazioarteko inbertsiogile handiak presioa egiten ari direla arazo makroekonomikoak dauzkaten herrialdeen gainean. Xantaiaren bitartez, gastu sozialaren eta lan-eskubideen murrizketa bortitza planteatzen ari dira. Sindikatuen mugimendua eraso hori orekatu behar du, mobilizazioen bitartez.

Euskadiko CCOO ekintza bakarrean bildu ditu mobilizazio horiek, Greba Orokorra deitu baitu ekainaren 29rako. Greba honek eduki eta proposamen propioak dauzka, ezin hobeto egokitzen zaiolarik gure sindikatuaren mobilizazio, proposamen eta negoziaketa ereduari. Protesta proposamenarentzat. Gobernuaren proposameneko alderdi kaltegarriak kentzea eta negoziazioaren bideari berriro ekitea eskatzen dugu, krisiari bidezko irtenbide eraketa bilatze aldera. Elkarriketa sozialaren eta elkarriketa horretan nahiz negoziazio kolektiboan hitzartutakoa betetzearen balioa aldarrikatzen dugu. Mugimendu sindikalaren ekintza aldarrikatzen dugu, gure interesak jokoan dauden arlo guztietan, bai Euskadin bai Espainian, eta baita ere Europan.

Oraingo honetan, Euskadiko CCOO eskizofrenia antzu horiek saihestea erabaki du, bai enpresetan bai langileen artean. Euskal sindikalismo konfederaleko proiektuak oinarri indartsuak dauzkalako. Irailaren 29an beste hitzordu bat dugu Europako deialdiaren barruan.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



MUSIKA > LEHIAKETA

Bartolome Ertzillako neskak abesbatzen Portugaleko lehiaketan

Uztailaren 1etik 4ra Portugal iparraldean ospatuko den Freamunde International Choir Contest nazioarteko abesbatzen lehiaketan parte hartzeko aurkeratua izan da Durangoko Bartolome Ertzilla Musika eskolako ahots zurien taldea.

Uztaileko lehenengo asteburua Portugaleko jaialdian eman-go dute hamabost emakumeek, kantuan. Lehiaketaren hiru modalitateetan hartuko dute Durangaldeko hainbat herritako kantariak parte: kanta sakro, ganbera kantu sakro eta folk modalitateetan jardungo dute Portugalen.

Durangoko musika eskolako ordezkariekin batera, hainbat herrialdeetako abesbatzak ere izan-

go dira Freamunden lehiaketa; besteak beste, Kenya, Nigeria, Konggo, Singapur eta Europa Ekialdeko taldeek ere eskainiko dituzte euren kantak. Bartolome Ertzilla musika eskolan 1998an sortutako abesbatza munduko beste hamahiru abesbatzazagaz lehiatuko da Freamundeko hitzorduan. Azkeneko lau urteetan legez, Jon Ugarrizak jardungo du abesbatzaren zuzendaritzan.

Portoko eskualdeko Freamunde herriko parkean egingo dute lehiaketa; 750 eurokoa da musika sakroaren alorrean eman-go duten lehenengo saria, eta 500 eurokoa bigarrena. Folk modalitatean, berriz, 500 eurokoa da lehenengo eta 250eko bigarrena. ■ I.E.

12 Hamabigarren Musikaire Elorrion

Maria Berasarte donostiarraren uztailearen 2ko Lourdesko fado kantaldiak zabalduko du aurtengo Musikaire jaialdia: haizetarako hamabi ikuskizun izango dira aurten.



13

Jinhee Kim pintura irakasleagaz

Uztaila eta abuztuaren Durangoko Kukutze jatetxean ipini duen erakusketari eta Zeharkalean daukan ArtLeku arte eskolari buruz jardun dugu Kimegaz.

MUSIKA > JAIALDIA

Hamabi kultur emanaldi dakartza uztailean Musikairek

Uztailaren 2tik 25era bitarteko egitarau oparoa dakar Musikairek jaialdiak Elorriora: musika eta antzerkiagaz gozatzeko hamabigarren proposamena

Orain 13 urte Amparanoia taldea sortu zuen Amparo Sanchezek bakarlarilegez kaleratu duen lehenengo diskoaren, *Tucson-Habana* diskoaren aurkezpena da 2010eko Musikairek jaialdiaren lan erdietan, uztailearen 10ean, Elorrion izango duguna. Duela urte bi abiatu zuen bakarkako ibilbidea, eta aurreko hamarkadan kaleratutakoak baino "pertsonalagoa" dela proiektu berri hau esan du aurkezpenean Amparo Sanchezek. Calexico tal-

dearen kolaborazioagaz, AEB eta Kuba artean jardun zuen musikariak diskoa grabatzen.

Bere lehen bakarkako lana aurkeztuko du Amparo Sanchezek

Horren aurretik, baina, mesizajearen erakusle den Donostian jaiotako Maria Berasarteren Portugalgo fadoen emanaldia izango da aurreko zortzi zuzeneko musi-

ka emanaldi ekarriko dituen Elorrioko munduko kulturen jaialdia zabalduko duena. *Todas las horas son viejas* diskoan bildutako kantak dakartza Berasartek. Portugaldarra izan ez arren, fadoak harrapatu eta Lisboara joan zen musikariak sortutakoak dira kantak. Tiago Torres da Silva poeta portugaldarrak idatzirik letretan oinarri hartuta kantatzen du Lisboako fado tradizionala.

Los Mares de China diskoa aurkeztera datoz Elorriora, bestalde, Tony Zenet abeslari malagarrak eta bere taldea. Amparo Sanchezek bezala, bakarlarilegez kaleratu duen lehenengo diskoa dakarkigu Musikairekera. Andaluziako koplak, Argentinako tangoa, Kubako sona zein New Yorkeko jazz erritmoak eta doinuak uztartzen ditu bere taldekideekin.

Hamabi kultur emanaldi dakartza aurrean Musikairek Elorriora

Musika klasikoa bizi dugun XXI. mendera hurreratzea da, bestalde, The Graffiti Classics lauokotea egiten duena. Musika ez ezik, koreografia eta umorea ere asko lantzen du uztailearen 24an emanaldia eskainiko duen taldeak.

Maitasunari eta Mendebaldeko Saharako desertuko naturari kantatzen dion Aziza Brahim musikariaren doinuak eta poesia ere badakartza Musikairek, uztailearen 16an, Durangaldera.

Hamabigarren edizioan ere, munduko beste txoko batzuetako sortzaileen lana gerturatzeaz gainera, baina, Euskal Herriko musikari eta sortzaile handien doinuek ere badute Elorrioko Musikairen oihartzunik. Iazko urte amaieran *Irla izan* diskoa aurkeztu zuen Anarik, urte berean *Hai-zea garizumakoa* kaleratu zuen Ruper Ordorikaketa Audience talde gernikarrak ere joko dute uztaileko hiru gautan Elorrion.



GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea

EHAZE

Ongi etorri Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea. Zazpi egun bete-ko dira elkartearen aurkezpen publikoa egin zela, eta hemen gaudugu, zutabetxo honetatik elkarte berri honi ongietorria emateko asmoarekin. Euskal antzerkigintzan dauden hutsuneak betetzeko asmoarekin sortu den erakundea dela esan dute, eta bizi dugun egoera kontuan harturik premia hori dela ezin dugu ukatu. Hala ere, gogora ekartzea nahi dut hogeitaka urte luzetan hor egon dela EATAE (Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkartea) jo eta ke helburu ia berberekin; elkarte honetan talde profesionalak ez zuten parte hartzen. Zazpi herrialdeetan euskaraz egiten ziren antzerki-lanak esparru amateurrean batuz eta zirkuitu propio baten bitartez taularatuz.

Honen lekuko, bi urtetik behin egiten ziren topaketak: Sara, Deba, Mutriku, Bermeo, Elgoibar, Ataun. Egituraketa amateur bate-tik, beste erakunde batzuk egiten ez zuten lana titiritero lan-talde batek aurrera eramaten zuen. Norbaitek beste garai batzuen islada dela esango du; konpromisoa eta militantzia hitzak horrelako prestigio soziala zutenekoa. Zoritxarrez, akaso, arrazoi dute eta EATAEK amore eman behar izan du, eta talde bakoitzak dituen indarrak eraketa propioa mantentzeko erabili izan ditu. Bermeon izan genituen topaketetan, Karrerek, Oiartzungo ipuin kontalaria, bazkide-tza ireki baten premia ikusten zuen garai hartako EATAEri sendotasuna emateko.

Denborak arrazoi eman dio eta EHAZE Bertsozale Elkartearen ispiluan begiratuz une honetan dagoen hutsunea betetzera dator; testu bilketa, antzezpeneen jarraipena, formakuntza... Beharrezko den zerbait ezin dugu ukatu, eta indar metaketa behar dugu antzerkigintzan ere. Hala ere, periferiako antzerkimania-koak informatuago egotea eskertuko genuke, urrutia bizi gara hedabide nagusietatik, baina, hala ere, eten gabe egiten dugu lan euskal antzerkigintzaren alde.

Umeendako apropos pentsatuta, *Irrien lagunak* ikuskizuna dakarte uztailearen 4an Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, eta antzerkia, umorea eta zirkua ekarriko dituzte Durangaldera, bestalde, Trapu Zaharra, Che & Moche, eta Le Petit Cabaret antzerki taldeetako sortzaileek.

Sahara, Portugal, Malaga eta Euskal Herriko doinuak

Emanaldien datak

- Uztailak 2, 22:30ean, **MARIA BERASARTE**, Lourdesen
- Uztailak 3, 22:30ean, **CHE Y MOCHE**, plazan
- Uztailak 4, 19:30ean, **PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS**, plazan
- Uztailak 9, 22:30ean, **ANARI**, Argiñetan
- Uztailak 10, 22:30ean, **AMPARO SANCHEZ**, plazan
- Uztailak 11, 22:30ean, **LE PETIT CABARET**, plazan
- Uztailak 16, 22:30ean, **AZIZA BRAHIM**, plazan
- Uztailak 17, 22:30ean, **RUPER ORDORIKA**, plazan
- Uztailak 18, 19:30ean, **TRAPU ZAHARRA**, plazan
- Uztailak 23, 22:30ean, **AUDIENCE**, Argiñetan
- Uztailak 24, 22:30ean **GRAFFITI CLASICS**, Tola jauregian
- Uztailak 25, 22:30ean, **ZENET**, Tola jauregian

ARTEA > ELKARRIZKETA

“Oso gustuko dut irakastea; neuk ere asko ikasten dut”

Olioagaz eta akrilikoagaz hiru koadro dihardu lantzen Durangoko Zeharkaleko **ArtLeku** eskolan **Jinhee Kim** margolariak orain. Pintura irakasten die urtarriletik 27 ikasleri bertan. Uztail eta abuztuan Kukutze jatetxean ikusgai ipini du bere margolan eta grabatuen bilduma bat.

Kontaiguzu zein izan den Durangora heldu aurretiko zure bizitzako ibilbidea.

Seulen jaio nintzen, eta 10 urtetatik 25 bete arte Madrilen bizi izan naiz. Bertan ikasi nuen Arte Ederrak. Hemen bizi arren, baina, beti mantendu izan dut nire jatorriko ekialdeko kultura. Han ikasitako mentalitatea eta asko bidaiatu izatetik zein gurasoen gogo zabaletik jaso dudana mundu ikuskerak osatua naiz.

Durangora ailegatu eta ArtLeku gunea sortu zenuen.

Durangar bategaz ezkondu nintzen, eta urte bi daramatzat hemen bizitzen. ArtLeku sortzearena gero etorri zen. Aurretik, hamar urtez, Mexiko, Kolonbia eta Espainiako enbaxadentzako egin nuen lan: artista espainiarrei ekialdeko atek zabaldu eta bertan finkatzen laguntzen nien. Urte horietan artista horien bitartez mantendu nuen nire sorkuntza ere.

“Madrilen bizi izan naiz 10 urtetatik 25 bete arte; han ikasi nuen Arte Ederrak”

Denbora gutxiago zeneukan Enbaxadako garai hartan zure sorkuntza lanerako?

Enbaxako lanaldiak beste batzuk baino laburragoak izateak nahikoa denbora uzten zidan arratsalde z nire margolan eta grabatuak egiteko, egia esan. Nire denbora librea horretan ematen nuen, baina erakusketarik ez nuen egin; beti izan dut lana konpartitzeko gogo hori.

ArtLekun egiten duzun lanean, berriz, konpartitzen duzu zure lana besteekin; dakizuna irakasten, erakusketak ipintzen...

Bai, eta oso gustuko dut irakastea, nik neuk ere asko ikasten dudalako irakatsiz: barruan daukadana ateratzen dut. Urtarrilean zabaldu genuen, eta 27 ikasle dauzkat dagoeneko: oso pozik nago. Asko motibatzen

nau irakasteak, jendeagaz egoiteak. Asko betetzen nau. Bere burua margotzeko ezgauza ikusten zuen jendeak bere obra zelana osatzen duen ikustea oso betegarria da. Horiei beti esaten diet: “Zuk ezkutuan zeneukan talentua”.

Zelako jendea hurreratu da sei hilabeteotan ArtLekura?

Gehienak pertsona helduak dira, gutxiengoa dira umeak: %25 gutxi gorabehera. Gehiena 20 eta 50 urte arteko jendea da. Badaude etxeako andrea oso aktiboak, institutuko irakasleak, ikasleak... Hemen lasaitasuna topatzen dutela esaten dute denek, asko erlaxatzen direla eta euren mundu propioa topatzen dutela. Niri ere berdin gertatzen zait. Bestetik, jendea asko motibatzen du bere barneko obra bat zelana ateratzen den ikusten joateak; asko betetzen du jendea bere lana ikusteak.

Eta zuk noiz margotzen duzu?

Ikaslerik ez daukadanean, bakarrik nagoenean joaten naiz nire lanak osatzen, eta horrela sortu nituen erakusketak honetarako koadroen erdiak, olioagaz egindakoak. Beste erdiak Madrilen bizi nintzen egindako grabatuak dira. Izan ere, oraingo makinarik ez daukat hemen: irailtik aurrera bai, grabatu tailerra atonduko dugu.

Zure jatorrizko ekialdeko kulturaren eragina egiten dituzun koadroetan ere nabari da.

Horrela da, bai: ekialdeko herrialde batean jaio bako batek ere eduki dezake bere marrazkietan ikutu hori, baina nire kasua bai esango nuke han bizi izan nintzeneko esperientziak eragindakoa dela. ArtLekun badaukat kaligrafia erakusteko txoko bat ere; umetan bost urtez egunero joaten nintzen kaligrafia ikastera.

Ulertzen al duzu hemen ekialdeko kulturaren kaligrafiak daukan esanahi berezia?

Kaligrafia ez da hizkuntza txinatarrak, japoniarra edo korearra ezagutzea bakarrik: artea da kaligrafia. Ez da letrak ezagutzea; pintzelagaz egindako kaligrafia arte kontsideratzen dugu Asian. Oso oso gogoko dut mundu hori: asko erlaxatzen



nau. Lotura handia du budismoagaz eta konfuzionismoagaz. Kaligrafia txinatarrak, korearra eta japoniarra lantzen ditut nik.

Eta baduzu kaligrafia ikasten duenik ArtLekun?

Bai, bost lagun etortzen dira; 17, 28, 33 eta 50 urteko lagunak dira. Artearen inguruan esperientzia duten lagunak dira, interes handia dutenak artean. Kultura orientalak asko erakartzen ditu; kultura desberdinak ezagutu gura dituen jendea da. Klaseetan, kaligrafiaz ez ezik, gastronomiaz ere egiten dugu berba, eta oso giro polita sortzen da.

Arkitekturari buruzko liburuak, nobelak... Beste adierazpide artistiko batzuek ere badute ArtLekun espaziorik.

Beti maite izan dut arkitektura mundua, baina sekula ez dut nire burua horretan lanean ikusi; ez naiz zientzietakoa. Baina, egia esan, nire etxean arteari buruzko baina arkitekturari buruzko liburuak dauzkat gehiago. Daudakadan liburuak ikasleekin konpartitzea gustatzen zait; ikasleek zirriborroak egiteko eredu legez erabiltzen dituzte. Bestetik, nire ikasleei beti gomenda-

“Asko maite dut ekialdeko kaligrafiaren inguruko kultura guztia”

Erlaxatu, ikasi eta kulturaren adierazpideak konpartitzeko gunea

“Grabatuak egiteko tailerra atonduko dugu irailerako ArtLekun”

zten diet koaderno bat eraman dezatela aldean, ideiak, zirriborroak egiten joateko. Oso beharrezkoa da artistak deneriko adierazpideak ezagutu eta baliatzea. Leioan Arte Ederrak ikasiko duten ikasle bi ditut, eta eurekin konpartitzen ditut, besteak beste, nire apunteak.

Grabatuak egiteko tailerra ipintzea duzu orain helburu...

Bai, izan ere, grabatugiletzat daukat nire burua. Epe laburrean daukadan proiektu inportanteena grabatuak egiteko tailerra martxan jartzea da. Balia bide asko eskaintzen dituzte serieak egitea, esaterako.

Artea eta psikologia uztartzeari buruz ere jarduten duzu.

Bai, artearen psikologia eta pedagogia jorratu izan ditut; oso interesgarria iruditzen zait, egiten dituzten marrazkien bitartez umeen psikologia ezagutzeko aukera ematen duelako terapia mota horrek. Durangon daukadan lagun handiena psikologoa da, eta beragaz konpartitzen ditut liburuak, zalantzak... Margotzen duenean erlaxatu egiten da umea, eta bere barne mundua zintzoki kanporatu. ■ I.E.

PROGRAMAZIOA > EMANALDIAK

Ekainaren 27an, domeka honetan, Andra Mariko elizpean izango da Uda Kalean Bizi jaialdiaren lehenengo emanaldia; eta uztailaren 30era arte dantza, musika eta ume zein helduentzako antzerkia eta zirkua eskainiko dituzte herriko hainbat txokotan, haizetara eta herri-tar guztientzako zabalik.

Bederatzi kultur emanaldi dakartza XI. Uda Kalean Bizi jaialdiak aurten. Domeka honetan da lehenengo ikuskizuna: nazioartean sona handikoa den The Graffiti Classics taldearen, lau musikari bertutetsuren eta antzezle handiren lana da programazioa zabalduko duena.

Domekakoaren ondoren, uztailean zehar dira emanaldiak. Musikari dagokionez, hiru dira uztaileko emanaldiak: Rock Izar eskolako jazzlari boskoteak, Elkano Browning Cream - Mikel Azpirozoren hirukotea - eta La Lira de Cheste musika bandak joko dute.

Umeei zein helduei zuzenduta, antzerkia eta zirkua uztailean dituen Malas Compañías taldearen *Oilaskoetxea* uztailearen 18an, Madrilgo Le Petit Cabaret taldearen *Muchas noches y buenas gracias*, uztailearen 10ean Ezkurdi

Domeka honetan abiatuko da Uda Kalean Bizi programazioa

Kalean gozatzeko bederatzi musika, antzerki eta dantza saio Durangon



plazara, eta Gasteizko Kolektivo Monstrenko taldearen umore absurdoaren erakusle den *Tenemos que hablar* ikuskizuna uztailearen 3an Tabirako parkera, dakartzela Durangoko programazioak.

Elkano Browning Cream taldeak uztailearen 15ean joko du Durangon

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Kriskitin dantza taldeak antolatu duen Nazioarteko Folklore Jaialdiagaz emango dute programazioa amaitutzat: Dagestan-go dantza emanaldiagaz.

EGITARUA

- The Graffiti Classics Ekainaren 27an, 20:00etan, Andra Mariko elizpean
- Rock Izar Quintet Uztailearen 1ean, 20:30ean, Etxezarreta parkean
- Kolektivo Mostrenko Uztailearen 3an, 22:00etan, Tabirako parkean
- Le Petit Cabaret Uztailearen 10ean, 20:00etan, Ezkurdi plazan
- Elkano Browning Cream Uztailearen 15ean, 20:30ean, Etxezarreta parkean
- Malas Compañías Zirkua Uztailearen 18an, 19:00etan, Udaletxeko plazan
- Kukai dantza taldea Uztailearen 23an, 19:00etan eta 20:00etan, Udaletxean
- La Lira del Cheste Uztailearen 29an, 20:00etan, Andra Mariko elizpean
- Naz. folklore jaialdia Uztailearen 30ean, 22:30ean, Andra Mariko elizpean

Dantza tradizionala oinarri hartu eta moldatuta sortu duen *Soka* ikuskizuna eskainiko du Kukai taldeak, bestalde, Ezkurdi plazan, uztailearen 23an Uda Kalean Biziren barruan. ■ I.E.

LITERATURA > EKIMENA

Herrien arteko irakurketa maratonia Durangaldean

Elorrioren, Iurretan, Durangon eta Zaldibarren egingo ditu geldialdiak 'Bizi-letra' lehiaketak

Uztailearen 2an 16:00etan Elorrioko herriko plazan, uztailearen 6an Iurretan, 7an Zaldibarren, eta 9an Durangon dago Bizi-Letra maratonia parte hartzeko aukera.



Liburutegiak kalera atera eta irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz herri-bibliotekek martxan ipinitako ekimena da "herrien arteko maratoni" hau. Bultzatzaileen azalpenen arabera, "bizikleta egokitu bat 15 egunetan zehar Euskal Herriko 30 udalerritan zehar ibiliko da".

Helburua, parte-hartzaile guztien artean 365 km egitea ipini dute antolatzaileek. Herri bakoitzean lau orduz ipiniko duten bizikletan igo, eta bataz bizikleta gidatzen duen bitartean lagunak bozgoran irakurtzea da proposamena: irakurketa izango da bizikletaren "erregai" sinbolikoa. Lehiaketaren saria, irakurketa sustatzeko balidabidea izango da.

PINTURA > ERAKUSKETA

Aurtengo pintura tailerrean sortutako lanak ikusgai

Udalak antolatutako pintura tailerrean parte hartu duten hamar lagun lanak Txanportan

Ekainaren 21ean zabaldu zuten Txanporta kultur etxean erakusketa, eta 30era arte ikusgai egongo da udal pintura tailerreko parte-hartzaileek burutu dituzten lanen hautaketa.

Urritik maiatzera arte ikasleek egindako 30 koadro ikusgai

Abadiñarrek amaitu berri den ikasturtean zehar egindako 30 koadro inguru dira erakusgai ipini dituztenak. Iazko urritik maiatzera arte, Abadiñoko Udalak antolatutako pintura tailerrean

parte hartu duten hainbat adinetako hamar lagunek osatutakoak dira kultur etxeko erakusketan ipini dituztenak. Astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:45era dago erakusketa zabalik.

Hainbat disziplina artistikoren inguruko aisialdi ikastaroen programa antolatzen du Udalak urtero, eta herritarrek denbora librean askotariko disziplinak ikasiz gozatzeko da pintura tailerrean helburua ere. ■ I.E.

Abadiñoko Txanporta kultur etxean, ekaina amaitu arte bisitagai

BERTSOLARITZA >

Aguraingo finalean lan polita egin zuten abadiñar gazteek

Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek lankidetzan antolatu duten Euskal Herriko XXII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala, ekainaren 19an, Araba Euskaraz jaialdiaren bezperan, jokatu zuten Aguraingo Harresi aretoan. Finalean ziren Txaber Altube eta Aitor Bizkarra abadiñar bertsolari gazteak ere.

Hamalau urtera artekoen mailan Maialen Akizu urretxuarrak izan zen txapelidun eta Aitor Bizkarra txapelidunorde. Finalaren bigarren parterako, Txaber Altube laguna ere sailkatu zen: zortziko nagusiko ofiziotan, gainera, elkarrekin egin zuten Altubek eta Bizkarrak bertsoan: sarelako telefonoaren inguruan eztabaidan zebiltzan aita-seeen paperean jardun zuten biekin. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

eskatu ezazu Plateruenean

menuBONOA

ordaindu 5 menu eta 6 jan

1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6. dohainik

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

THE GRAFFITTI CLASICS
Andra Mari elizpea
Ekainak 27 • 20:00

ROCK IZAR QUINTET
Etxezarreta parkea
Uztailak 1 • 20:30

UDA KALEAN BIZI 2010

San Agustin KULTUR GUNEAN
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.94 601 07 76

Atxondoko San Pedro Jaiak



anboto



Atxondoko udalak

San Pedro jai zoriontsuak
opa deutsuez!



Atxondoko JAI EGITARAUA

EKAINAK 27, DOMEKA

- 08:30ean Mendi martxa. Irteera Apatako plazatik.

EKAINAK 28, ASTELEHENA

- 17:30ean Haurrentzako tailerrak, kalejira eta txopo txikia.
- 19:30ean Txopoa altxatzea. Amama Luisa Brass Band. Pregoia: Pilota Eskolaren eskutik. Ondoren, sardina-jana plazan.
- 22:00etan Herriko nagusien pilota txapelketako finalak. Ondoren, gau berezia Gaztetxean.

EKAINAK 29, MARTITZENA

- 10:00etan Txistulariak.
- 12:30ean Meza.
- 13:00etan Herriko umeen pilota txapelketako finalak.
- 16:30ean Umeentzako Gynkana eta motor elkarteratzea plazan.
- 18:00etan Pilota partiduak.
- 22:00etan Andasto dantza taldearen ikuskizun berezia frontoian. Ondoren, film labur emanaldia Gaztetxean.

EKAINAK 30, EGUAZTENA

- 11:00etatik 13:00etara 'Jokulandia', puzgarriak Ziarreta auzoan.
- 14:00etan Jubilatuentzako bazkaria frontoian.

- 18:00etan Gorriti eta bere abereak.
- 20:00etan Kale antzerkia Hotz Muga: 'Olynpikas 2012' Ziarreta auzoan.

UZTAILAK 1, EGUENA

- 20:00etan Briska eta partxis txapelketa Gaztetxean.

UZTAILAK 2, BARIKUA XXIV. Bakailao eta Tortilla Txapelketa

- 20:30ean Tortilla eta kazuelak batuko dira. Herri-afaria frontoian. Ondoren, Luhartz. Gauerdian txokolatada. Kontzertuak Gaztetxean (Kilauea eta Harrikada)

UZTAILAK 3, ZAPATUA

- 11:00etan Umeentzako tailerrak Gaztetxean.
- 14:30ean Koadriren arteko bazkaria frontoian, Paella erraldoia. Ondoren, monologoak eta kale animazioa.
- 22:00etan Arantza eta Pantxo (Rantxerak, korridoak, tangoak...) plazan.
- 24:00etan Su artifizialak (futbito zelaian). Kalejira 'Jaietan ere, preso eta iheslariak etxera!!'

UZTAILAK 4, DOMEKA

- 17:00etan Igel txapelketa Itziar tabernan.
- 18:00etan Txan magoa, umeentzako, Gaztetxean.
- 19:30ean Txopoa bota eta saiheski-jana plazan.
- 22:00etan Txan magoa, nagusientzako, Gaztetxean. Ondoren 'Jaiak gogoratzuz' argazki emanaldia.

UZTAILAK 10, BARIKUA I. 4x4 Trial Txapelketa

- 15:30ean Markoidako landetan.



**ESTAMPACIONES
LARRETXE S.L.**

• PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA

• HAGAKKAK HOTZEKO ESTANPATZEA

• ESTANPATZEA ORO HAR

Jauregi kalea, z/b - ARTIA ind. 5.pab. - 48 292 ATXONDO
TEL.: 946 231 645 - Faxa: 946 231 436 - www.larretxe.com

BURDINAK, S.L.

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia Indus. Tel.: 94 658 31 64 Faxa: 94 658 34 16 ATXONDO

Jai giroaz gozatzeko gogotsu

Amama Luisa Brass Bandek joko du, txopoa altxatu ondoren

Ekitaldiz beteta datorkigu aurten Atxondoko Sanpedro jaien egitaraua.

Urtero eratzen dituzten ekintzez gainera, nobedade ugari aurreikusi ditu jai batzordeak. Markoidako landetan 4 x 4 Trial Txapelketa, esaterako, lehenengoz antolatuko dute.

Gazteei zuzendutako makina bat hitzordu prestatuko dute. Haurrentzako tailerrak, kalejira eta txopo txikia ekainaren 28an, arratsaldeko 17:30ean, antolatuko dute. Umeek arratsaldean ginkanean eta motor elkarretaratzean parte hartzeko aukera izango dute, plazan. Puzgarrien *Jokulandia* ekainaren 30ean, goizean, prestatuko

dute Ziarreta auzoan. Umeentzako tailerrak uztailaren 3an eratuko dituzte, Gaztetxean. Txan Magoa ere hurreratuko da jaietara.

Umeendako hainbat ekitaldi antolatuko dute herrian. Txan magoa Gaztetxean izango da

Umeendako saioa eskainiko du uztailaren 4an, arratsaldean, Gaztetxean; nagusiendako emanaldia, berri, gauean.

Jateko aukera ugari daude Atxondoko jaietan. Pregoiaren ondoren, sardina-janean bilduko dira bertaraten direnak. Jubilatua



bazkarian batuko dira. Bakailao eta tortilla txapelketaren ondoren, uztailaren 2an herri-afaria prestatuko dute frontoian. Erromeria egunean, gauerdian, txokolatea. Paella erradoia banatuko dute, uztailaren 2an, koadrilen artean.

Briska eta partxis txapelketak uztailaren 1ean Gaztetxean jokatu dituzte. Igel txapelketa, uztailaren 4an Itziar Tabernan.

Musika

Amama Luisa Brass Band talde durangarrak, txopo igoeraren ondoren, jaietako musika jarriko die. Luhartz taldeak uztailaren 2an erromeria giroa jarriko du. Gaztetxean Kilauea eta Harrikada taldeek zuzeneko kontzertua emango dute. Rantxerak gustuko dituztenek uztailaren 3an Arantza eta Pantxo entzutera joateko aukera dute.

Luhartz taldeak erromeria eta Kilauea eta Harrikadak kontzertua emango dute



Dantza emanaldia San Pedro gauerako

Ekainaren 29an 22:00etan da hitzordua

Ekainaren 29an, San Pedro egunean, baina gauetz, 22:00etan, eskainiko du herriko Andasto dantza taldeak jaietarako prestatutako emanaldi berezia. Iaz Axpen egin zuten lehenengoz dantza emanaldia gauetz, eta esperientzia Apatan errepikatzea erabaki dute aurten.

Emanaldiaren orduagatik ez ezik, bestela ere izango da biharkoa berezia: herriko etxeetan batu dituzten dantza-taldearen argazkiekin osatu duten bideoa emango dute San Pedro egunean. Ondoren egingo dute dantza emanaldia: umeen taldean zein

nagusienetan dabilzan 45 atxondarrek jardungo dute dantza emanaldian. Umeen zartagin-dantzaren eta nesken zein mutilen taldeen emanaldien ondoren, sorgindantza, aureskua eta atzeskua ere eskainiko dizkiete, besteak beste, herrikideei.

Herriko etxeetan batu dituzten dantza taldearen argazkiekin osatu duten bideoa erakutsiko dute

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzalea:



Garaje ateak / Automatikoak / Eskuzkoak
Instalazioak / Konponketa / Mantenua

ATEMÁTİK

Artia industrialdea, z/g Tel.: 94 623 15 25 / Faxa: 94 623 18 95
48292 ATXONDO -BIZKAIA

Hortzmuga taldearen olinpiararak

Imajinazioagaz jolas egiteko proposamena ekainaren 30erako

Jaian parte hartzen duten adin guztietako herritarrek gozatu dezaten sortutako antzezlanak dakar, ekainaren 30ean, Hortzmuga taldeak Atxondoko jaietara. Ume, gazte zein helduei imajinazioagaz jolasteko gonbita egingo diete 'Olympicas 2012' lanagaz: herrialde txiki eta ezezagun bateko hiru atletaren bisita jasoko dute datorren eguaztenean, 20:00etan, Ziarreta auzon.

Munduan zehar euren kirol erakustaldiak eskainiz, Londreseko 2012ko olinpiadetan parte hartzea lortzea da antzezlanaren hiru protagonisten helburua: ikuslegoa konbentzitzea.

laz bete zuen Hortzmuga taldeak sortu zuteneko bigarren hamarkada, eta, hain zuzen ere, iaz ekin zioten 'Olympicas 2012' lana herriz herri erakusteko bidaiari.

Antzezlanean atleta eta aktore handien haizetarako emanaldiagaz gozatzeko ume zein helduentzako hitzordua ekainaren 30ean 20:00etan da, Ziarreta auzoan, Sanpedroetan.

Urte bi barruko Londreseko joko olinpikoetan parte hartzea lortu gura dute protagonistek



Biziberrituta bueltatu den pilota txapelketa

Nagusietan 48 pilotazalek eman dute izena

laz gaztetxoek txapelketa berreskuratu zuen Atxondoko pilota eskolak, eta aurten, urrats berri bat emanez, nagusien mailakoa antolatzea erabaki dute. Hasieran dudak zituzten txapelketak zelako harrera izango ote zuen, baina arrakastatsua izan da.

Nagusietan maila bi daude; lehenengo mailakoan hamar bikotek eman zuten izena, eta bigarren mailakoan 14 bikotek (48 pilotazale). Gainera, bi ez beste guztiak atxondarrak dira.

Gaur, 22:00etatik aurrera, finalurrekoak jokatuko dituzte Axpeko frontoian. Lehenengo mailako partidu biak hauek dira: Solaguren-Armendia / Zuazubizkar-Zuheros eta Asier-Jaio / Areitio-Pujana. Bigarren

Nagusien finalak hilaren 28an jokatuko dituzte, eta gaztetxoek, berriz, 29an

mailan, berriz, honakoak: Ibon-Gotzon / Olaetxea-Luis eta Rogriguez II-Barreinkua / Cristian-Kopi.

Nagusien finalak hilaren 28an 22:00etan jokatuko dituzte, eta gaztetxoek 29an, 13:00etan.

Mendi martxa
Bestalde, ekainaren 27an, 08:30ean, XXI. Mendi Martxa antolatu dute Apatako plazatik irtenda. Tope, Oilar txabola, Atzeko, Muru, Albiste gaina eta Olarretan zehar Axpen amaituko dute.

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxa: 94 623 17 99

CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

4x4 Trial Txapelketa antolatu dute uztailaren 10erako

20 kotxe inguruk parte hartzea itxaroten dute, lehia eta erakustaldia uztartuz



Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarria izango da Atxondoko proba

Triala garatuko den lekuan bertan edo telefonoz eman daiteke izena

Atxondoko gazte talde batek sortu du txapelketa berezi hau; ez da ikuskizunik faltako

Ekimen berritzaileak eratu dute Atxondon uztailaren 10erako: 4x4 Trial

Txapelketa. Lehenengo bider egingo da, gainera, eta ikuskizunik ez da faltako. Atxondoko gazte talde batek sortu du txapelketa berezi hau, eta gura duenak parte hartzeko aukera du.

Herriko gazteen egitasmoa

Herriko hiru-lau gaztek trialerako zaletasuna daukate, eta hara eta hona dabilta

azkenaldian 4x4ekin, probetan parte hartzen. Euren gustuko jarduera hau euren herrira ekartzea ere gura izan dute, eta Sanpedro jaien bueltan burutzea erabaki dute.

Markoidako landetan prestatuko dute txapelketa-

Markoidako landetan prestatuko dute txapelketarako zirkuitua

rako zirkuitua. Lurra mugituko dute, zuloak-eta sortuz, ibilbidea gorabeheratsua izan dadin. Izan ere, kirol honek horrelako lurra behar du, bere ezaugarriak betetzeko, behintzat.

Euskal Herriko puntuagarria

Arratsaldeko 15:30ean hasiko da motor hotsa Atxondon. Antolatzaileek azaldu digutenez, irteeran 15-20 parte-hartzaile izatea itxaroten dute. Seguru espezialista handienak bertaratuko direna; izan ere,

Atxondoko proba puntuagarria izango da Euskal Herriko Txapelketarako.

Dena dela, izena emateko epea zabalik dago, eta esperientzia gutxiago dutentzako ere plaza interesgarria izan daiteke Atxondokoa. Triala garatuko den lekuan bertan eman behar da izena, 15:00etan, baina telefonoz izena emateko aukera badago dagoneko: 679 578 062 eta 690 771 328 zenbakiak ipini dituzte horretarako zein informazioa jasotzeko eskuragarri.

• Continental Teves: urteko hornitzaile onenari saria (2004-2006)

2002 ENPRETSAREN INGURUMENTERAKO KUDEAKETA JASANGARRIAREN EUROPEAR SARBIA

EMAS sistemari (ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzarako europar sistema) inskribatuta

- ISO/15-16949
- ISO 14001
- OHSAS 18001

ANAIAK, s.a.l.

HARROZTEGIA ETA TEILATUGINTZA

Martza Auzoa, z/g 48291 ATXONDO

Tel. / Faxes: 94 623 14 97



NEKAZARITZA KOMERTZIALA

BASERRI TRESNAK

Konponketa eta salmenta:
traktoreak, segamakinak, motozerrak,
motoaitzurak, moztailleak, belarra mozteko makinak,
sasiak garbitzeko makinak...




650€-tik gora

MOTOAITZURRA

MOTOZERRAK
GASOLINAZKOAK



199€-tik gora



169€-tik gora

GASOLINAZKO
MOTOSEGAK ETA
SASI-GARBITZEKOAK

BELARRA MOZTEKO MAKINA



399€-tik gora



2.995€-tik gora

GASOLINAZKO
BELARRA MOZTEKO
TRAKTOREAK

HAIZE MAKINAK
XURGAGAILUAK



245€-tik gora

San Pedro eta Santa Isabel JAIAK 2010



anboto

ez dugu emakumeen aurkako
indarkeriarik ezta eraso
sexistarik onartuko



JAIETAN ERE EUSKARAZ



BERRIZKO
UDALA

Berrizko JAI EGITARAUA

EKAINAK 25, BARIKUA

- **19:00etan** Pregoia eta txupinazoa Udaletxean, Berrizko AEKgaz. Jarraian, jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa Udaletxean. Ondoren, sardina-jana.
- **19:30etik-20:30era** III. Herriko DJ Jaialdia, Elizondo plazan, DJ Roberregaz.
- **22:00etan** Aretoko dantza ikasleen ekitaldia Kiroldegian.
- **23:00etan** III. Herriko DJ Jaialdia Elizondo plazan, DJ Roberegaz.
- **23:30ean** Txosnagunean, kontzertua: Tres41, Estricalla eta Dinero.

EKAINAK 26, ZAPATUA (Koadrilen Eguna)

- **11:00-14:00** eta **16:30-19:00** Elizondotik Olakuetarainoko trenan, Berrizko Merkatari Elkartek antolatuta.
- **14:00etan** Paella lehiaketa, Udaletxeko lorategian.
- **17:00etan** Karta Joko Lehiaketa: mus, tute eta briska. Izen-ematea 16:30etik 17:00etara.
- **17:30etan** Gorriti eta animaliak, Elizondo plazan.
- **19:30etan** Herriko Igel Txapelketa.
- **20:00etan** San Pedro eta Santa Isabel II. Frontenis Txapelketa, Kiroldegian.
- **22:30ean** Erromeria Beste Bat taldeagaz.
- **23:30ean** Kontzertua eta erromeria: Esne Beltza eta Trikizio.
- **24:00etan** Bolo Txapelketa.

EKAINAK 27, DOMEKA

- **11:30ean** Antzinako auto eta motor erakusketa, Udaletxeko lorategian. Euskal erromeria.
- **12:00etan** Kalejira hasiko da Olakuetan, trikitalariekin eta Bilboko gaita-jotzaileekin.

- **13:00etan** Elizondon, euskal dantza eta larrain dantza erakustaldia. Herri bazkaria udaletxeko lorategian.
- **16:30ean** Euskal erromeria Ansorregi taldeagaz. Berrizko Oizpe Pilota Elkartearen VIII. Txapelketako finalak, 4 1/2an, Olakueta frontoian.
- **18:30ean** Erlojupeko igoera Olakuetatik Elizondoraino.
- **22:00etan** Sun Magoak 'Sunkers' ikuskizun magikoa aurkeztuko du Txosnagunean.

EKAINAK 28, ASTELEHENA

- **11:30ean** Umeentzako ohiko jolasak. Eskolako patioan.
- **18:00etan** Poxpolo eta Konpainia pailazoak, Txosnagunean.
- **19:00-20:00** Lisker musika taldeagaz dantzaldia Elizondo Plazan.
- **20:00etan** Donien Atxa eta 'Dantzari dantza' entsegua.
- **22:30ean** Lisker musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

EKAINAK 29, MARTITZENA (San Pedro Eguna)

- **11:00etan** Margo lehiaketa umeentzat.
- **12:00etan** Meza nagusia. Ondoren Dantzari Dantza.
- **18:00etan** Bizikleta martxa herrikoia, Udaletxe aurrean hasita.
- **19:00etan** Bertso saioa, balkoitik balkoira, Elizondo plazan. Bertsolariak: Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Igor Elortza.
- **20:00etan** Dantzari dantza.
- **21:00etan** Luhartz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

EKAINAK 30, EGUAZTENA

- **11:30ean** Gazteentzako Tribiala. 12 urtetik gorakoentzat.

- Udaletxeko lorategian. Iturritza kalean (leku berrian) Ping-Pong, Xake eta Dama Txapelketa. 16 urtetik beherako gazteentzat.
- **17:30-19:30** Herri jolas eta jokoak Kulki taldeagaz, Udaletxeko parkean.
- **18:00etan** Udaletxeko parkean, guztiontzako Tiragoma Txapelketa.
- **19:00etan** Herriko igel txapelketa 16 urtetik beherako gazteentzat.
- **20:00etan** Tortilla Lehiaketa. Tortillak Udaletxe sarreran aurkeztu behar dira. 18 urtera artekoentzat. Kategoria 2: 10 urtetik 14ra bitartean, eta 15 urtetik 18ra.
- **21:30ean** DJ Xaibor. Musika eta jai.
- **22:30ean** Gazteentzako bolo txapelketa. 18 urtetik beherakoentzat.
- **23:00etan** Bits jai.

UZTAILAK 1, EGUENA

- **12:00-13:30 / 16:00-19:00** Umeentzako jolas parkea eskolako patioan eta Elizondo plazan.

UZTAILAK 2, BARIKUA (Santa Isabel Eguna)

- **12:00etan** Meza nagusia eta Dantzari dantza.
- **14:00etan** Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean, musika Kiroldegian.
- **18:00etan** Txosnagunean umeentzako erromeria paregabea. 'Parranda' Deabru Beltzak taldeagaz.
- **19:00etan** Udako Pilota Txapelketako finalak.
- **20:00etan** Dantzari dantza. Tortilla lehiaketa Udaletxeko lorategian.
- **22:30ean** Drindots musika taldeagaz dantzaldia Elizondo plazan.
- **23:00etan** Su artifizialak.
- **23:20ean** Drindots musika taldeagaz dantzaldia Elizondo plazan.



**L ORENTZO
R ECORDS**

GRABAKETAK

Caserío Orue, Bº San Lorenzo
48240 • BERRIZ (BIZKAIA)
Tel. 94 622 54 01
Fax 94 682 57 01



Liburudenda
Amaluv
aldizkariak papera opariak

Iturritza 29, Berriz Tel: 94 682 62 48

Jai giroa alaitzeko ekitaldi asko

Berrizko jaietan erromeriak berreskuratu gura izan dituzte

Ekainaren 25ean emango diete jaiari hasiera Berrizen, Udaletxean. Berrizko AEK-ko ikasleek pregoia botatzeko ardua izango dute aurten. Txupinazoa jaurtitzeko dute kartel lehiaketako sari-banaketa egingo dute. Kartel irabazlea Asier Virumbralesen Txilinak da. Jai batzordeak azaldu duenez, erromeria jai berreskuratu gura izan dute aurten egitarauan. Beraz, dantzan egiteko aukera ugari izango da Berrizen.

Antolatzaileen berbetan, jai herrikoi eta parte-hartzaileak prestatzeko ahalegina egin dute. Gaineratu dutenez, paella lehiaketa osteko bazkarian 1.100 lagun apuntatu dira.

Donien atxa jasotzea eta

Paella lehiaketa eta geroko bazkarian 1.100 lagunek izena eman dutela jakinarazi dute



Dantzari Dantza entsegua ekainaren 28an egingo dituzte. Saioa ekainaren 29an eta ekainaren 1ean, eguerdiko 12:00etako mezaren ondoren eskainiko dute dantzariak. Egunotan,

arratsaldetan emanaldiak eskainiko dituzte. *Balkoitik balkoira* bertso saioan, ekainaren 29an Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Igor Elortza arituko dira.

'Balkoitik balkoira' bertso saioan Amuriza, Lazkano eta Elortza arituko dira



Gaztetxoek gustuko duten egitaraua

Gazteen tribiala antolatuko dute Berrizen

Ekitaldi ugari antolatuko dituzte Berrizko jaietan gazteei zuzenduta. Umeendako betiko jolasak ekainaren 28an, eskolako patioan, 11:30etik aurrera izango dituzte. Poxpolo eta konpainia pailazoen arratsaldeko 18:00etan emanaldia eskainiko dute txosnen gunean.

Margo lehiaketan ekainaren 29an 11:00etan bilduko dira. Gazteek duten jakintza erakusteko aukera

izango dute gazteen tribialan, 12 urtetik gorakoentzat prestatuko duten ekitaldian, ekainaren 30ean 11:30ean, Udaletxeko lorategian. Egitarauaren barruan 16 urtetik beherakoek ping pong, dama eta xake txapelketan goizeko 11:30ean eta igel txapelketan arratsaldeko 19:00etan parte hartzeko aukera izango dute. Bolo txapelketan, 22:30ean, 18 urtetik beherakoek parte hartu ahal izango dute.

Umeendako betiko jolasetan parte hartzeko aukera izango da, ekainaren 28an, eskolako patioan

HIERROS RIEZU S.A.

Eitua industrialdea
Tel.: 94 682 41 31
Faxa: 94 682 43 90
48240 BERRIZ

CALIBRADOS DE ACERO

TREFILERIAS DE BERRIZ, S/A

Eitua industrialdea, 10
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 94 682 40 13
Faxa: 94 682 73 98

Ganeko Etxe
JATETXEA

Elizondo z/g • 48240 Berriz • Tel.: 94 682 40 27

Apur bat behera etorrita zegoen Oizpe txapelketaren sasoi bateko izena berreskuratzeko oinarriak ipintzea izan dute helburu aurten pilota eskolako kideek. Ez da urte batetik bestera lortu daitekeen kontua, baina gogotsu ekin diote eta zaleek pilotalekura joanez erantzun dute.

Beitiak irabazi zuen finalaurrekoetan, baina ezin duenez etorri, Peñasek jokatu du Uriarteren kontra

Domekan, 16:00etatik aurrera jokatu dira gazte txoen zein nagusien mailako finalak. Nagusietan, lau t'erdian, Lizarrako Peñas eta Abadiñoako Rober Uriarte lehiatuko dira. Finalaurrekoetan Beitia usansoloarrak 22-20 menderatu zuen Peñas, baina ezin du etzi Berrizera etorri eta Lizarrako pilotariak beteko du bere tokia. Horiek horrela, Rober Uriarte da txapela janzteko faborito.

Nagusien finalagaz gozatu aurretik, gazte txoen mailako sei final jokatu dituzte. Benjaminetan Axpe-Axpe bikote atxondarrak Ansola eta Larruskainen kontra jokatu du; ondoren, Atxondoko Ane eta Egurenek Durangoko Albear eta Lizarralderen kontra jokatu dute. Kimu mailan ere atxondarrak dira protagonista. Lehenengo Arginzoniz eta Rodriguezek Munitibarko Okamika eta Zabalaren kontra jokatu dute; ondoren, Amaiak eta Nuñezek Zaldibarko Pradera eta Iparraguirre izango dituzte aurrez aurre.

Haur-kategorian Munisgurenak (Markina) eta Otadui (Berriz) Erkizia eta Urizar berriztarren kontra jokatu dute. Kadeteetako finaletan, berriz, Angiozar (Berriz) eta Diez (Atxondo) Legorburu

Domekan, 16:00etatik aurrera gazteen finalak jokatu dituzte; Atxondoko hainbat pilotari sailkatu da

Domekan, Oizpeko finalak jokoa

Nagusietan Peñasek Uriarteren kontra jokatu du



Kepa Aginako

eta Salutregiren (Munitibar) kontra lehiatuko dira txapelaren bila.

Pilota baino frontenis gustukoago duenak zapatuan, 20:00etan, frontenis txapelketagaz gozatu deza-

Etzi, Olakuetatik Elizondorako kronoigoera egingo dute

ke pilotalekuan. Egun berean, gauerdetik aurrera, bolo txapelketa ere antolatu dute. Amaitzeko, domekan, 18:30ean, erlojupeko iguera egingo dute Olakuetatik Elizondora.



Antzinako auto eta motor erakusketa

Iaz 30 auto eta 10 motor batu zituzten

Domekan, 11:30ean, bigarren biderrez antolatuko dute antzinako auto eta motor erakusketa. Iaz 25 urtetik gorako 30 auto eta 10 bat motor batu zituzten, ia denak Berrizkoak.

Iaz legez, aurten ere Miota, Elorrio eta Abadiño eta Traña-Matienatik osteratxo egingo dute denek batera, Udaletxeko parkera heldu aurretik. Iaz Ganeketxen bazkaldu zuten gidari guztiek. Aurten, euren ekimenak dantzarien saioagaz bat egiten duenez, bi ekitaldietako kideek elkarrekin bazkalduko dute Berrizburu kiroldegian.

Urtero legez kotxe eta motor bereziak ikusi ahalko dira. Esaterako, sasoi batean 125 zentimetro kubikotan Espainiako txapeldun geratu zen Faustino Hernándezek bera gidari zeneko lau bat motor ikusgai ipiniko ditu Udaletxeko parkean.

Miota, Elorrio eta Abadiñotik itzulia egingo dute, eta ondoren Udaletxeko parkean batuko dira

Harategia - Ardaitegia
JAYO
 Iturriza, 21 Tf.: 94 682 44 64 BERRIZ

Juliantxu
 jatetxea
 ☎ 946824077-48240 BERRIZ (Bizkaia)

Rocka eta erromeria doinuak

Ahoz aho dabilen hainbat talde izango dira zuzenean Berrizen

Nor hoberik jaietako musika eskaintza zabaltzeko etxeko jendea baino. Tres41 taldeak emango dio hasiera gauari, bere hardcore doinuekin, 23:30ean Txosnagunean. Eurekin batera, beste berriztar bat kide duen Dinero izango da; Ekain Elortzaren egitasmo berria da, Madrilgo eszenan bidea egiten dabilena. Jaialdia betetzeko Estricalla taldea igoko da oholtzara; Fernando Saporen -Kuraiako abeslari ohia- talde berria da, erritmo biziz datorrena.

Bihar dantzarako aukera emango dute Esne Beltza eta Trikiziok. Lehenengok, disko berri

eta guzti, trikitia munduko hainbat musikagaz nahastuko dute, udarako estilo aiposean. Euskal Herrian moda-modan dago talde

Tres41 berriztarrekin batera, Estricalla eta Ekain Elortzaren Dinero taldeak joko dute gaur

berriztaile hau, Xabier Solano buru duela. Bigarrenek erromeria eskainiko dute; festagaz jarraitzeko aukera ederra, beraz. Trikiziokoak ere plazaz-plaza dabilta aspaldion.



Erromeria, eguneroko errejeta

Batez ere, ikusentzule gazteentzako antolatu dituzte gaueko kontzertuak, baina erromeriak ere leku garrantzitsua izango du aurtengo jaietan. Makina bat taldek ekarriko dute euren erreperitorioa: Luhartz, Lisker, Drindots, Ansorregi eta Beste Bat taldeek, hain zuzen ere. Adin guztietako berriztarrak dantzan ipiniko

dituzte Elizondo plazan, iluntzean zein gauez. Ansorregik, adibidez, eguerdian eta arratsalde zoko du domeka honetan.

Luhartzek, esaterako, eskualdeko herri eta auzoetatik saio ugari emango ditu udan zehar, eta Berrizera ere hurreratuko da.

Drindots talde betaranoak emango die agurra herriko jaietara, Santa Isabel egunean.

Esne Beltzak trikitia munduko hainbat musikagaz nahastuko du, udarako estilo aiposean



Launa plus
Ondua

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

FORJAS DE BERRIZ S.L.

Forja eta beroko estanzak, neurria eginiko piezak

Iturriza, 22
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 94 682 65 20
Faxa: 94 682 65 21
E-mail: sales@forjasdeberriz.com

www.forjasdeberriz.com

anboto

Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...

www.anboto.org

anboto komunikabideak

“Jaietan ere euskaraz egitera bultzatuko ditugu herritarrak”

AEK-ko ikasleen ardura izango da jaietako txupinazoa bota eta pregoia irakurtzea



Ana Domínguez

“Jendeak gehiago egingo balu euskaraz, guk errazago ikasiko genuke”

“Sardina-janean eta biharko paella txapelketan parte hartuko dut, adibidez”

Jaietako txupinazoa botako du Valbona Garitagoitiak, AEK-ko bere ikaskideekin batera. Euskara ikasten denbora gutxi eroan arren, sortzez albaniarra den 29 urteko gazte honek gogo itzela erakusten du. Pregoa irakurtzeko urduri dagoela aitortu digu, baina jaietan ez da etxean geratuko.

AEK-ko ikasleei egokitu zaizue jaietara ematea. Urduri nago, baina oso pozik ere bai. Izan ere, gauza garrantzitsua da, eta gudan pentsatu dute.

Prestatuta al daukazu pregoia? Zer esango duzue? Bai, testua idatzita daukagu. Etxean daukat eta behin eta berriz irakurtzen nabil, hanka ez sartzeko. Lehen

biderra da horrelako zozter egiten dudana, eta ez dakit zelan irtingo den. Urte gogorra izan da krisiagatik, eta jendeari jaietaz disfrutatzeko esango diogu. Jaietan ere euskaraz egitera bultzatuko ditugu.

Noiz hasi zinen AEKn? 2007an hasi nintzen ikasten, baina bigarren geratu nintzen haurdun, eta erdizka

segitu nuen. Aurten hartu dut berriro; beraz, urte bi egin ditut.

Zergatik egin zenuen euskaraz ikasteko aukera?

Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Gainera, gizona eta bere familia euskaldunak dira, eta bizi naizen herrialdeko hizkuntza menperatzea gustatzen zait. Oraindik asko hobetu gura dut, jendeak hemen egiten duen moduan berba egiteko.

Beste hizkuntza batzuetan ere moldatzen zara, beraz.

Ingelesa, frantsesa eta italiarra nekizkien hona etorri aurretik. Horregatik, erraza-

goa egin zitzaidan gaztelera ikastea euskara baino. Euskaraz ez du loturarik latinetik datozen hizkuntzeekin, eta gaitzago egiten da.

Baina merezi du...

Noski baietz. Asko gustatzen zait, hemengo jendea eta orokorrean Euskal Herria bera gustatzen zaizkidan moduan. Nire ustez, jendeak gehiago berba egingo balu euskaraz, ni lako jendeak errazago ikasiko luke. Nik etxeko laguntza izan dut. Nire ikaskideek ez dute etxean euskaraz berba egiteko aukera izan, eta igartzen da; nik ulermen abantaila izan dut.

Zenbat urte darozu hemen?

Bost urte beteko dira abenduan, etorri nintzenetik. Albania da nire herria, baina Berriz ere nire etxea da; berriztarra naiz. Oso ondo bizi gara hemen. Gainera, albaniarrek eta euskaldunak antzekoak gara familia giroari dagokionez.

Zer ekintza ez duzu galduko jaietan?

Sardina-janean eta paella txapelketan izango naiz, esate baterako. Umeekin eta ikusi egin behar, baina ahal bada txosnetatik ere buelta bat egingo dugu gauren batean.

TORNILLERIA AMEZUA, S.A.
T.A.
TORLOJUEEN
BEROKO
ESTANPAZIOA

Estacion 9 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
 Telefonoak 94 682 40 59 / 94 682 49 10 - Faxa: 94 682 79 80
 E-mail: jamezua@tornilleria-amezua.com - www.tornilleria-amezua.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxo: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

VCG decoletaje

Eitua industrialdea, 20
 BERRIZ
 Tel.: 94 682 40 12
 Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A. Faxa: 94 682 79 78

www.vcg-decoletaje.com
 comercial@vcg-decoletaje.com

SAN ANTONIO, 1.
 48.240 BERRIZ BIZKAIA
 TEL: 94.682.62.46

pedrojuan
 JATETXEA

IRITZIA

Aurten ere berdin. Apatako igerilekuak berandu zabaldu(ko) dira

Ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15era bitartean, herri guztietako udako igerilekuak zabaldu ziren, sasoi baita, nahiz eta eguraldiak lagundu ez. Baina Atxondokoak, noiz? 15ean ez, betiko moduan. Nahiz eta iaz alkate jaunak Anboton agertutako igerilekuei buruz egindako idatzi bati buruz honako hau esan: "Ez dogu uste egokia denik aitatutako idatzia gezur bategaz hastea, gezurra delako 'urtero' berandu zabalitzen direla Atxondoko igerilekuak." (342 alea, 2009ko irailaren 11a). Ostiralean, 11n, udalekoek ez zekiten noiz zabalduko ziren, eta gaur, osteguna 17, datorren asteazkenean, 23an, zabalduko dituztela esan didate. Egia ote?

Urtero bonoa ateratzen dugunok eguraldiaren kontra ezin dugu ezer egin, eta aurten zer esanik ez dago, guk jakingo dugu merezi duen ala ez. Baina udalak konponketak ekainaren 15erako eginak eduki behar dituela uste dut, eta baimenak ere ordurako prest egon beharko liriteke. Beti azkenean momentura arte itxaron behar al da konponketak egiteko? Beraz, ez dut uste aitzakiarik dagoenik aurten ere atzerapenez zabalteko. Orain arte eguraldiaren laguntza izan dute udalekoek, baina ekainaren 21etik aurrera eguraldi ona daukagu, uda heldu da, baina ez dugu igerilekuetara joateko aukerarik.

Dagoeneko zortzi egun kendu dizkigute igerilekuak aprobetxatzeko. Eskubiderik ba al dago horretarako? Irailean zortzi egun gehiago izango ditugu? Hau da, irailaren 23an, itxiko al dute? Iaz hartu zen erabakia hori izan baitzen. Zer erantzungo digute udaletik aitzakia moduan? Atzerapen honek hobekuntzak ekar ditzala espero dut, aurreko urteetan egin ez diren konponketak egiteko aprobetxatua izan dadila espero dut. Lehen aipatu dudana idatzian alkateak honakoa esan zuelako: "Datorren urterako, baina, horreek eta beste batzuk be konponduta egongo dira, beste gauza asko baitago konpontzeko oraindino." (342 alea).

Ekainaren 23an 11:00etarako bertan egongo gara, eguraldi ona daterrela esan dutelako eta udaletik ordurako zabalik egongo direla esan digutelako. Eta atzerapenaren atzerapenez dena konponduta egongo delako. Eguraldiaren baimenaz denok disfrutatu nahi dugu Apatako igerilekuek eta guk (batez ere, gurasok) ere gure partetik jarri behar dugu, bertako arauak errespetatu eta betez: txanoarekin bainatuz, arropak aldatzeko aldagelak erabiliz, eta zer esanik ez dago txizka komunean egiten dela (eta gure "semea" txisa egiten ikusten badugu ez dugu beste aldera begiratu behar), bainu jantziak bainatuz (denok, derrigorrezkoa baita),...

Hau dena kontatu ondoren, uda on bat opa dizuet denoi eta eguraldiaren laguntzaz deskantsatzeko aprobetxatu dezagun. Opor zorionsuak denontzat.

Leire Arteaga Arana

Aldaketa politiko eta sozialaren alde: Zutik langileria! Zutik Durangaldea!

Egun bizi dugun krisi ekonomikoaren harira langileok inoiz ezagutu dugun erasorik bortitzena pairatzen ari gara. Aski ezaguna da egun indarrean dauden politika fiskal eta ekonomikoek jauntxoan zerbitzura egindako neurriak baino ez direla. Hau da, egun bizi dugun lan eskubideen inboluzio orokorra ("krisi ekonomikoa" izenez ezagutua) jauntxoan eta hauek ordezkatzeko dituzten alderdi politikoen interesen arabera dagoela diseinatu. Legeak gutxiengoaren elite ekonomikoaren interesen arabera daude eginak. Lege erreformaren kasuan, gehiengoaren langileen beharrei erantzun beharrean, kapitalaren eta honen ordezkari diren elite politikoen interes eta helburuei baino ez die erantzuten.

Gauzak honela, esku arrotzek euskal langileoi inposatu nahi diguten lan erreformak bi helburu nagusitan laburbildu ditzakegu.

1) Lan baldintza duinak dituzten langileak ordezkatu eta prekarietatean oinarritutako lanpostuak sortzea, helburu nagusi eta argi batekin: lanpostu prekarioen bitartez patronalaren etekin nabarmen handitu eta kalera-rtze kostuak gutxitzea.

2) Lege erreforma honen bitartez patronalari aldekarreko erabakiak hartzeko eskumena ematen zaio. Gehiengoaren langileon lan baldintzak aldatzeko gaitasuna ematen zaio, hitzarmen kolektiboan gaintetik. Horrenbestez, lege erreforma honek, hitzarmen kolektiboak negoziatzeko dugun eskubidea urratzen du.

Ezker Abertzalean oso argi daukagu egun aurrera eraman nahi duten lege erreforma hau testuinguru zehatz batean kokatu behar dela: erabaki-

tzeko eskubidearen ukazioan. Gure ustez, erreforma hau ez da krisiari aurre egiteko tresna eraginkorra. Alde batetik, egungo krisiari sorrera indarrean dagoen eredu neoliberalen duelako, eta ez kimatu nahi dituzten langileon oinarrituko eskubideetan. Eztabaidan jarri eta moldatu beharrekoa Euskal Herrian inposatu diguten eredu politiko eta sozio-ekonomikoa bera da, eta ez berez bortxatuak izaten ari diren oinarrituko eskubideak. Beste alde batetik, krisiaren sorrera, eraginak eta kudeaketa ereduak berriro argiki erakusten digute herri honek burujabetza beharrezkoa duela, arlo politiko zein sozio-ekonomikoan herri bezala dagozkigun erabakiak hartu ahal izateko, bai krisiari aurre egiteko bai berezko eredu politiko, ekonomiko eta soziala garatu ahal izateko. 'Zutik Euskal Herria' ebazpenean jasotzen dugun bezala, aldaketa politikoari aldaketa soziala gehitu nahi diogu: aldaketa sozialik gabeko aldaketa politikoa hankamotz geratuko litzatekeelako, eta aldaketa politikorik gabeko aldaketa soziala ezinezkoa delako. Beraz, eredu neoliberalak ezartzen duen bidegabekeriari aurre egiteaz gain, garatu beharreko ezkerreko borroka herri zein langile sektoreen indar metaketa ahalbideratu behar du, gure eredu politiko eta sozio-ekonomikoa burujabetzatik eraikitzeko.

Zentzu honetan sindikalgitza burutzen ari den lana funtsezkoa da. Eta Durangaldeko Ezker Abertzaleak pausu garrantzitsua deritzo ekainaren 29an gehiengo sindikalak deitutako Greba Orokorriari. Deialdia aldaketa politiko eta sozialaren norabidean eta herri eta langile bezala ditugun eskubideen defentsan beste urrats bat den heinean Ezker Abertzaleak bat egiten du deialdiarekin. Aldi berean, aldaketa politiko eta soziala ezinbestekotzat jotzen duten herri sektore orori, greba egunean zein Bilbo eta eskualdeburuetan burutuko diren mobilizazio desberdinetan parte hartzea dei egiten diogu. Herri honek beharrezkoa duen aldaketa politiko eta sozialean beste urrats txiki bezain sendoa emateko.

Aldaketa politiko eta sozialaren alde: Zutik Langileria! Zutik Durangaldea! Ekainaren 29an Greba Orokorra, Durangaldea kalera!

Durangaldeko Ezker Abertzalea

Abadiñoako Udalarik gutun irekia

Gure institutuaren ikasleekin heziketa fisikoa egiteko ezinbestekoa dugu Matienako frontoiaren erabilpena, beste eremu estalirik ez daukagulako. Horrela dago onartua udala, eskola eta institutuaren artean.

Baina, urteak joan eta urteak etorri, sarritan aurkitzen gara frontoiaren erabilpen egokia egin ezinik, astelehen askotan frontoia zikin aurkitzen dugulako, edozein jaialdiaren ondorioz lupetza, alkohol isuriak, zabor ondareak e.a. aurkitzen ditugulako, edo hainbat bider eszenatokiren bat edo beste trabaren bat bertan jarrita aurkitzen dugulako.

Sarri adierazi diegu udaleko gure ezintasuna, baina ez digute arazoa konpontzen, eta horren ondorioak gure ikasleek jasaten dituzte.

Azken gaur izan da, ekainaren 21ean, astelehenean, ikasleekin kurtsu bukaerako frontoi-jokoak antolatuta genituen, eta ezin izan ditugu burutu kantxan hainbat material egon baita: aulkiak, musika aparatua, ardo botilak eta abar.

Abadiñoako Institutua

Leginetxetik Euskal Herrira

Joan ziren makina txikitzaileak. Txorien kantuak itzuli ziren. Pasibitate eta konformismoa bukatu zen. Elkartasuna eta konpromisoa etorri ziren. Heriotza urrundu eta bizitza gerturatu. Hori da AHTaren aurkako ekintzaileek okupatu eta gero, azken hilabetean, Leginetxeko baserrian gertatu dena.

Baserri hori lehenengo desjabetu egin zuten, eta ondoren bertako bizilaguna eta jabea bota egin zuten, biaduktu bat eraikitzeko. AHTaren bidean baserri bat eraikitzea ere! Hori burugabekeria!

Kapitalismoak hil egiten du, ez dauka gizatasunik, aurrean daukan guztia suntsitzen du. Baina amalurrari eraikitzen duten tunel eta biaduktu bakoitzeko negar malkoak daritzio. Esate baterako, baserriaren ondoko errekan oraindik bainua har daiteke, oraindik ez da akabatuko duen progresoa iritsi, baina noiz arte? Zelatatzen gaituzue, beldurtzen gaituzue, identifikatzen gaituzue eta kriminalizatuz egiten gaituzue. Baina, zer egin dugu? Baserriarrak eta euren bizimodua defendatzen saiatu? Mendiak eta errekek defendatzea terrorismoa al da, ba? Hemen jarraitzen dugu eta jarraituko dugu, zorakeria hori geratzen saiatuko gara, umiltasunez baina ilusio handiz. Gu guztion etxe honetatik AHTaren aurka zaudeten guztiok animatzen zaituztegu borroka honetan parte hartzera.

Zornotzako AHT Gelditu! Elkarlana

Sei hankako mahaia



Juan José Gastañazatorre PP

Merezimendua eta konstantzia

Duela aste batzuk JAEDeko ordezkariekin batzordean biltzeko aukeraz gure geroa eta gehiago harrizten gaitu pertsona batzuek euren bizitza lagun hurkoari eskaintzeko daukaten gaitasunak trukean ezer ere eskatu gabe; alderantziz, ez baitute euren denbora bakarrik eskaintzen—eta denok dakigu denbora urrea dela—, gainera, beharrezko ikusten dutenean euren poltsikotik jarritako dirua ere aurreratzen baitute, ondoren deneriko administrazioek euren gain hartzen dutena.

Bada, egunerokotasunean gaitu behar izaten dituzten zailtasunen berri eman zigutenean, Alderdi Popularreko adostutako zenbaterako gehitzea proposatu genuen—ez JAEDi bakarrik, Caritasi ere bai—, eta, hura uste-kabea gurea, gainerako taldeak ez ziren bat etorri gure proposamenarekin.

Alderdi Popularrak JAED eta Caritasi laguntza gehitzea proposatu zuen

Elkarte hauek udalerriari eskaintzen dioten zerbitzua eskertu ezinezkoa da, euren egoera ekonomikoa gero eta defizitarioagoa da eta hala jakinarazi digute, beharrezkoen premiak asetzeko egiten duten ahalegina titanikoa da... Zer kostatzen zaigu udaletik keinu bat egitea, diru aldetik handiegia ez bada ere, gure babesa eta eskerra agertzeko! Galdetu die zaiotela gainerako talde politikoei! Guk beti egingo dugu gure eskuetan dagoen guztia euren helburu nagusia beharrezkoan handienak dituzten durangarren alde gorputz eta arima eskainirikoei laguntzeko.

Beharrezko ikusten dutenean euren poltsikotik ateratako dirua ere aurreratzen dute

* Erredakzioan itzulia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko ekainaren 25a - 9. urtea - 379 zk.

Laguntzailea:	Honako herrietako udalak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Ekainaren 25etik 27ra, egun osoan Zornotzako kaleetan.

HAIZETARA

Europa eta Estatu batuetako bandarik onenak elkartuko dira Haizetara jaialdian. Kale musikaren nazioarteko lehiaketan Zephyrologie, Club Era, Samenako, Broken Brothers Brass Band, What Cherr? Brigade, Fantomatik, Brassafrik eta La Bandastre taldeek hartuko dute parte. Talde gonbidatuen artean, Zaparrada eta Saguzaharrak izango dira. Munduko doinuak, beraz, Zornotzako kaleetan entzungai.

BERBALDIA

DURANGO

>> **'Bularra ematea eta loa'** ekainaren 28an 18:00etan Pinondo Etxean.

BESTEAK

IURRETA

>> **Iurreta txirringuluarri elkarteak antolatutako ibilbidea**, ekainaren 26 eta 27an 08:00etan, Iurretan.

>> **Goiuriako Ama Elkartek** ekainaren 28an 18:30ean Bazkideentzako askaria, 20:00etan Kontzertua 'Iurretako Koroan'. Iurretako Nagusien egoitzan. **Ekainaren 29an Goiuriako Ama Elkartaren XXV. urteurrena** Iurretako Nagusien egoitzan. **San Pedro eguna** 13:00etan, Meza, dantzariak, eta txistulariak. Jarraian, kalejira Plazatik Nagusien Egoitzara. 14:30ean **Bazkaria** eta **omenaldia** bazkide sortzaileei, bereziki Julia Uribezubia andreari

>> **Mus, tute eta briska txapelketak** Iurretako Nagusien Egoitzan, bazkideentzako, ekainaren 25era arte, 18:00etan.

ERMUA

>> **Txikiteokide** euskaraz berba egin gura duen guztientzat hitzordua ekainaren 25ean 20:00etatik 21:30era

DANTZA

ATXONDO

>> **Kriskitin San joanetan. Dantza ikuskizun zabala** ekainaren 26an Axpeko pilotalekuan 22:00etan. Nafarroa, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzak ikusteko aukera, Durangaldeko Dantza Dantzak leku berezia izango duelarik. Egitaraua: **Luzaide**.- Lapurdi eta Nafarroako dantzen ikuskizuna. **Bizar Dantza**.- Lapurdiko **Irri-dantza** bat. Agurra.- Gipuzkoako dantza. **Durangaldeko Dantzari dantza**.



Sagar dantza.- Nafarroako Baztan eskualdeko dantza. **Kaixarranka**.- Lekeitioko dantza. **Paloteaus de**

Cortes.- Nafarroako Herribeheran hedatutako dantzak. **Aros de Lanestosa**.- Bizkaiko Lanestosa herrian abuztuko Ama Birjiñaren jaietan egiten dan dantza. **Bizkaiko Jotea eta porrua**.- Arratia eskualdean mantendu zen dantza egiteko era. **Lantz**.- Nafarroako Lantz herrixkako ifaunterietako dantza.

DURANGO

>> **IV. Munduko dantzak** ekainaren 26an arratsaldeko 18:30ean San Agustinen.

DEIAK

DURANGO

>> **Udaleku Artistiko Musikal**, uztailearen 5era arte, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> **Abadiñoako biztanleen hogeita hamar koadro inguru izango dira erakusgai**, pintura tailerlean margotutakoak, Txanportako Kultur Etxean, ekainaren 21etik 30era. Erakusketa ikusi ahal izango da, astelehenerdik ostiralera, 15:00etatik 20:45era.

BERRIZ

>> **Keramika ikastaroan egin dituzten lanen erakusketa** uztailearen 3ra arte Berrizko Kultur Etxean asteartetik ostiralera 18:30etatik 20:30era.

DURANGO

>> **Jinhee Kim** artistaren margolanen erakusketa Kukutze jatetxean abuztura arte. Abstraktua eta arkitektura uztartzen ditu 'Tu y yo' izeneko lanean.

ERMUA

>> **'Margoak'** Ermuko Udal Margo Eskolako ikasleek egindako lanen erakusketa ekainaren 27ra arte Lobiano Kultur Gunean.

IURRETA

>> **Iurretako Nagusien Egoitzan egin dituzten eskulanen eta maketen erakusketa**, ekainaren 29ra arte.

ZORNOTZA

>> **Zentsura at!** ekainaren 30era arte Zelaieta Zentroan. Zentsura eta errepresioa jasan zuten herri kanten eta rock musikaren materialen erakusketa.

IKASTAROKAK

DURANGO

>> **Kirol ikastaroak udan Landako kiroldegian**; esgrima, aerofit, spinbike, stretching, tenis, padela, aquagym eta aquabike. Hainbat egun eta prezio. Informazio gehiago www.durangokirolak.net edo 94 603 00 31 telefonoan.

ERMUA

>> **Sabel Dantza** uztailearen 1ean. Parte hartu nahi dutenek Lobiano kulturgunera edo 639 414 205 telefonora deitu. Lobiano kulturgunean 19:00etatik 21:00etara.

IPUINAK

DURANGO

>> **Kandelen Argipean umeentzako kontaktan** espezializatutako konpainia bilbotarrak ipuinak dakartzkigu Bego Gomez kontalararen eskutik ekainaren 26an, liburutegian, 12:00etan 3 eta 5 urte arteko haurrentzat eta 12:30ean 6 urtetik gorakoentzat.

JAIK

ATXONDO

>> **Ekainaren 27an** 08:30ean **Mendi martxa**. Irteera Apatako plazatik. **Ekainaren 28an**, 17:30ean **Haurrentzako tailerrak, kalejira eta txopo txiki**. 19:30ean **Txopo igoera**. **Amama Luisa Brans Band**.



Pregoia: Pelota Eskolaren eskutik. Ondoren **sardina jana** plazan. 22:00etan **Herriko nagusien pelota txapelketaren finalak**. Ondoren, **gau berezia** Gaztetxean. **Ekainaren 29an, San Pedro Eguna**. 10:00etan **Txistulariak**. 12:30ean **Meza**. 13:00etan **Herriko umeen pelota txapelketaren finalak**. 16:30ean **Umeentzako Gynkana** eta **Motor elkarteratzea** plazan. 18:00etan **Pelota partiduak**. 22:00etan **Andasto** dantza taldearen ikuskizun berezia frontoian. Ondoren **laburmetraien emanaldia** Gaztetxean. **Ekainaren 30ean San Pedro Txiki Eguna**. 11:00etatik 13:00etara Puzgarriak **'Jokulandia'** Ziarreta auzoan. 14:00etan **Jubilatuentzako bazkaria** frontoian. 18:00etan

Gorriti eta bere abereak.

20:00etan **Kale antzerkia** Hotz Muga. **'Olympikas 2012'** Ziarreta auzoan. **Uztailearen 1a**, 20:00etan **Briska eta partxis txapelketa** Gaztetxean.

AXPE

San Juan Jaiak 2010

>> **Ekainaren 25ean** 22:00etan **'Esku pelota partiduak; finalaurrekoak'** Atxondoko nagusi eta beteranoak. Ondoren txokolata. **Ekainaren 26an** 16:00etan **Mus txapelketaren hasiera**. Arratsaldean, **makailua pil-pilean** eta **tortilla txapelketa**. Sariak gazteentzat eta nagusientzat egongo dira. Aurkezpen ordua 21:00etan. (Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu). Parte hartu dutenek, **Herri afaria** egingo dute frontoian. **Jai Batzordeak** ogia, postrea eta kafea ipiniko dute. 22:30ean **Jaialdia** Kriskitin dantza taldearen eskutik. Ondoren erromeria **'Luhartz'** taldeagaz.



Ekainaren 27an **Umeen eguna**, 11:30ean **Meza** nagusia. Atxondoko **'Andasto'** dantza taldea. Ondoren **Txikien pelota partiduak**. 13:00etan **Mus txapelketaren amaiera**. 17:00etan **Zaki magoa** bere jolasak eta guzti. Arratsaldean; **pin-pon, futbolina...** Ondoren **txokolata**.

BERRIZ

San Pedro Santa Isabel

>> **Ekainak 25ean** 19:00etan **Pregoia eta txupinazoa** udaletxean, **Berrizko AEK-ko** ikasleekin. Jarraian **jaietako kartel lehiaketa-ko sari-banaketa** udaletxean. Ostean, urtero bezala **Sardina-jana**. 19:30-20:30era **III. Herriko DJ Jaialdia** Elizondo Plazan. **DJ Rober**. 22:00etan **Aretoko dantzen ekitaldia** Kiroldegian (Berrizko ikasleak). 22:30ean **III. Herriko DJ Jaialdia** Elizondo Plazan. **DJ Rober**. 23:30ean Txosna gunean kontzertua: **Tres41, Estricalla eta Dinero**. Txosnen egitarauaren barruan 19:00etan **konzentrazioa** udaletxean, 'Euskal preso eta iheslariak etxera'. 19:30ean txosnen irekiera eta **pintxo poteoa**.



Ekainaren 26an, 11:00-14:00 // 16:30-19:00 **Elizondotik Olakueta-raino doan Trena** Berrizko Merkatarri Elkarrekin antolatuta. 14:00etan **Paella lehiaketa** udaletxeko lorategian. 17:00etan **Karta joko lehiaketa: mus, tute eta briska**. Izen-ematea 16:30etik 17:00etara. 17:30ean Elizondo Plazan **Gorriti eta animaliak**. 19:30ean **Herriko Igel txapelketa**. Izen-ematea 19:00-19:30 bitartean. 20:00etan San Pedro eta Santa Isabel **II. Frontenis Txapelketa** kiroldegian. 22:30ean **Erromeria Beste Bat taldearekin**. 23:30ean Kontzertua eta erromeria: **Esne Beltza eta Trikiño**. 24:00etan **Bolo txapelketa**. **Txosnetan** 14:00etan **Bazkaria** (bakoitzak berea ekarri). 18:30ean **goitibera ez folklorikoa**. **Ekainaren 27an** 11:30ean **Antzina-ko auto eta motorren erakusketa** udaletxeko lorategian.



12:00etan **Kalejira Olakueta** hasiko da **trikiilari eta Bilboko gaita-jotzaileekin**. 13:00etan Elizondon **Euskal Dantza eta Larrain Dantza** erakustaldia. **Herri bazkaria** udaletxeko lorategian. 16:30ean **Euskal erromeria Ansorregi taldearekin**. Berrizko Oizpe Pilota Elkartean **VIII. Txapelketa finalak**. 4 1/2an Olakueta frontoian. 18:30ean **Erlojupeko igoera** Olakuetatik Elizondoraino. 22:00etan **Sun Magoak aurkeztuko du "Suners"** ikuskizun magikoa. Txosna gunean. **Auto eta motorren erakusketa**.

DURANGO

Tabirako jaiak

>> **Ekainaren 25ean** 19:00etan, **txupinazoa**. Txupinazoaren atzetik **txalaparta eta tortilla jana** etorriko dira, eta iluntzeko 20:00etan dantzaldia **Rex** taldeagaz. **Ekainaren 26an** goizean goizetik umeentzako zein kirola egiteko ekintzak izango dira. 10:00etan **Gaztelu puzgarriak** ipiniko dituzte eta **spining maratonia, arku tiroketa** zein **padel txapelketa** ere antolatuko dira. 11:00etan **bikoteen lasterketarako** hitzordua ere ipini dute. 10:00etan **Marmitako txapelketa**. 14:30ean **prestatutakoa dastatzeko ordua** izango da. Bazkalondoa **marixiek** alaituko dute. Gero, **mus, partxis eta saku txapelketak** jokatu dira. Gauean kontzertua eskainiko dute **Segunda mano, Yoko Out eta Alerta**

taldeek. Ekainaren 27an 12:00etan **artzain-txakur erakusketa.** 13:00etan **txahala ipiniko dute burduntzian.** 17:00etan, **dantza erakusketa** izango da, eta gero **kontzertua musika eskolako ikasleekin.** 21:00etan **txosna itxiko da**, baina horretarako kupelak hustuko dituzte.Ekainaren 29an 19:00etan **meza.**

ZALDIBAR

Eitzagako jaiak

» Ekainaren 25ean 18:00etan **Haurrentzako marrazki-idazlan lehiaketa.** 19:00etan **txokolatada herrikoia** parkean. 19:30ean **txopo altzatzea.** Ondoren **luntxa** Eizaga Auzo elkartean. 21:30ean **Lagunarteko jai-afaria.** Ekainaren 26an, 12:30ean **Paella/tortila lehiaketa.** 14:00etan **Sari banaketa.** Bukaeran **herri-bazkaria.** 18:00etan **Bolo jaurtiketa,** izen ematea 7 euro. Bolo txapelketan lehenengo seirek izango dute saria; lehenak 90 euro eta garaikurra lortuko ditu, bigarrenak berriz, 70 euro. Bitartean **saiheski herrikoia** egingo dute. Ekainaren 27an 12:30ean **San Pedro ermitan meza nagusia.** Bukaeran ardo eta **gaileta banaketa.** 13:45ean Parkean **Ermuko Txindurri dantza**



taldearen ekitaldia. 18:00etan **asto probak.** 20:30ean **Errifaren zozketa.** Ekainaren 29an **San Pedro deuna.** **Nagusiei omenaldia.** 19:30ean **San Pedro ermitan meza hildakoei omenaldia.** 21:00etan **Afaria** Eizaga auzo elkartean. Ondoren jaien bukaera.

MUSIKA

DURANGO

» **The Graffiti Classics,** kanta, musika, dantza eta klowna

uztartzten dituen ikuskizuna ekainaren 27an Andra Mariko elizpean 20:00etan.

ELORRIO

Musikaire

» **X. Azoka Kulturala ekainaren 26an** Plazan.

ERMUA

» **'Urban gazte jaialdia'** ekainaren 26an, Orbe kardenalaren plazan, 18:00etan: 'Batalla de Gallos'; 19:00etan Cirujanos (Hip-Hop); 20:00etan: 'Batalla de Gallos'; 00:00etan Papiro...flexia



ZORNOTZA

» **Haizetara 2010** kale musikarien Nazioarteko lehiaketa. Ekainaren 25ean 18:30ean Zelaieta Zentroan

Taldeei harrera. 19:30ean Zelaieta parkean **Taldeen aurkezpena eta lehiaketaren hasiera.** 20:00etan Andra Mari plazan: **Club Era.** 20:30ean Zezilia Gallarzagaitia kalean: **La Bandastre.** 21:00etan Kalbario plazan: **Fantomatik Orquestra.** Zezilia Gallarzagaitia kalea-Abasolo Apeizpiku kalean: **Brassafrik.** Euskal Herria enparantzian: **Broken Brothers Brass Band.** 22:00etan Euskal Taberna-Gernika plazan: **What Cheer? Brigade.** 23:00etan Sagardotegia-Zelaieta parkean: **Samenakoa.** 24:00etan Garagardotegia-Zubiondo plazan: **Zephyrologie.** Ekainaren 26an, 13:00etan Kalbario



plazan: **Samenakoa.** E.H. Enparantzian: **Brassafrik.** Sagardotegia-Zelaieta parkean: **Club Era.** Euskal taberna-Gernika plazan: **La Bandastre.** 19:30ean Zezilia Gallarzagaitia kalea-Abasolo Apeizpiku kalean: **Fantomatik Orquestra.** Andra Mari plazan: **Zephyrologie.** 20:00etan Zezilia Gallarzagaitia kalean: **What Cherr? Brigade.** Sabino Arana kalean: **Samenakoa.** 21:00etan Euskal Taberna-Gernika plazan: **Broken Brothers Brass Band eta Zephyrologie.** Kalbario plazan: **La Bandastre.** 22:30ean Sagardotegia-Zelaieta parkean: **Brassafrik, What Cherr? Brigade.** Euskal Herriko Enparantzian: **Club Era.** 24:00etan Garagardotegia-Zubiondo plazan: **Broken Brothers Brass Band, eta Fantomatik Orquestra.** Ekainaren 27an Auzoetan: Ogenbarrena, Jauregibarria, Gane,

Ixer... **What Cheer? Brigade, Fantomatik Orquestra, Zephyrologie, Broken Brothers Brass Band.** Erdiko kaleetan: **Samenakoa, Club era, La Bandastre, Brassafrik.** 13:00etan Zelaieta parkean (kioskoan): **Irabazleak izendatzea eta sari banaketa.**

» **Jazz kontzertuak tabernetan**



Ekainaren 25ean **Ba noa group** 20:00etan Jauregibarri jatetxean. 21:30ean **Mikel Bikandi Quartet** Konbenio Hotelean. 00:30ean **Joe Gonzalez Quartet** eta **Jam Session Harrison** hotelean. Ekainaren 26an 20:00etan **Mikel Bikandi Quartet** Jauregibarri jatetxean. 21:30ean **Joe Gonzalez Quartet** Konbenio Hotelean. 00:30ean **Ba noa Group** eta **Jam Session Harrison** hotelean.



Ekainaren 27an, 20:00etan Durangoko Andra Mariko elizpean

GRAFFITI CLASSICS

Graffiti Classicsek kantua, musika, dantza eta klowna uztartzten ditu taula gainean ikuskizun honetan. Graffiti Classicseko laukoteak ikuslea harritzea lortzen du, eta barre eragin. Irudimenaz gainera, hainbat musika tresna era paregabean jotzen dute; bibolina eta txeloa, besteak beste. Hainbat estilotako musika, umorea eta fantasiak bat egiten duten emanaldia ikusteko aukera Andra Mariko elizpean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Sexo en Nueva York 2 (Digital)

Zuzendaria: Michael Patrick King. barikua 25: 19:00 / 22:00 zapatua 26: 19:30 / 22:30 domeka 27: 19:30 / 22:30 astelehena 28: 19:00 / 22:00 martitzena 29: 20:00



Opera en HD directo satellite

La dama de picas eguena 1: 20:30

BOTIKAK

Barikua, 25
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Zapatua, 26
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• De Diego/ Sagastizabal/ SanRoma / Unamunzaga/ Balenciaga
Domeka, 27
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
Astelehena, 28
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Martitzena, 29
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguaztena, 30
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
Eguena, 1
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta 94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

29° BARIKUA
Eguzkiak bete-betean joko du eta giroa berotuko du. Hala ere, arratsaldean ekaitza sortzeko arriskua handia izango da. Bero-hodeiak garatuko dira eta zaparrada trumoiatsuak izan daitezke.

27° ZAPATUA
Giro nahasia egongo da. Zerua ez da oskarbi egongo; tarteka hodeitsu egongo da. Noizean behin zaparradak botako ditu eta ekaitza sortzeko aukera oso handia izango da; txingorra sortzea ere ezin dugu baztertu.

31° DOMEKA

28° ASTELEHENA

28° MARTITZENA



Euskal Harley D.C.
Kustom Jaiak
Durango

DURANGO TIK
MUNDU OSO BAT ZURE
MOTORRAREN ESKURA!
UZTAILAK 2-3-4

INFO
+ lizen emateak
masdendak@masdendak.com
www.euskalharley.com
94 681 81 42



KIROLAK >



Argazkia: Iban Gorriti

Zabaletak bolada onari eutsi gura dio Urkiolan

Urkiolako igoera jokatuko dute, zapatuan, Durangalde Racing eskuderiak antolatuta. Igoera berreskuratu zutenetik hirugarren urtea da aurtengoa; guztira, 14. aldia beteko du. Aitor Zabaleta Euskadiko mendi igoeretan orain arte erakutsi duen nagusitasuna sendotzen saiatuko da. Aritz Egozkue nafarra izan daiteke bolada ona eten diezaiokeen pilotua.

Ezkurdin beharrea, aurten Landako erakustazokan batuko dira gidariak. Egiaztapenak egin ondoren, Mañarian egokitutako laguntza puntura joango dira. 14:00etan itxiko dute errepidea, eta 15:30ean hasiko da 3,2 kilometroko lasterketa. Gidariak hiru bider osatuko dute igoera; lehenengoa entrenamendu saioa izango da, eta gainerako biak igoera ofizialak.

Guztira, 80 gidarik eman dute izena igoerarako, eta hamar klasetan —barqueta eta turismo sailetan banatuta— korrituko dute. Irabazteko faborito nagusia Aitor Zabaleta da, Lola BMW barquetagaz. Gaur egungo mendiko igoeretako txapeldunak ez du tronutik jais-teko ezelako asmorik. Orain arteko hiru lasterketak irabazi ditu: Udalarako igoera Oñatin,

Orain arte jokatu hiru igoerak berak irabazi ditu: Udala, Gorla eta Aiakoa

Gorlarakoa Bergaran eta Aiakoa Orion. Gainera, ez du Angela Vilariñoren itzalaren mehatxurik izango. Lehenengo hiru lasterketetan bera izan du arerio nagusietakoa, baina aurrerantzean Espainiako Errepideko Txapelketan ibiliko da, Suzuki bategaz. Beraz, Aritz Egozkue nafarra eta Ruben Nogueira oñatiarra izango dira Zabaletaren kontrario nagusiak.

Hurretik jarraitu beharko dira Imanol Lakar durangarraren eta Iñigo Olabegogekoetxea atxondarraren lanak ere.

Turismoetan, Lebeiti

Turismoen atalean Durangaldea Racing eskuderiako Jose Ignacio Erdoiza "Lebeiti" eta Aitor Ramirez oñatiarra (BMW 320 ST) dira irabazteko faborito. Hala ere, beste hainbatek ere badu bere aukera. ■ J.D.

20 Urteurreneko liburua eta DVDa

Tabirakok 50. urteurreneko liburua eta DVDa aurkeztu ditu. Asteburuan Landako erakustazokan egindako denboraldi amaierako bazkarian erakutsi zuten lehenengoz DVDa.

21 Udal hitzarmena Durangon

Asteon Durangoko Udalak kolaborazio hitzarmena sinatu du Durangoko hainbat kirol taldekin. Bai Udalak bai kirol taldeak gustura agertu dira lortutako akordioagaz.



Durangoko Elkartegian egin zuten liburuaren eta DVDaren aurkezpena.

Tabirakok 50. urteurreneko liburua eta DVDa atera ditu

Denboraldi amaierako bazkarian erakutsi zuten lehenengoz DVDa

Liburuak denboraldiz denboraldi Tabirakoren historia jorratzen du. DVDak saskibalo klubaren historian garrantzitsuak izan diren lagunen ahotik kontatzen du 50 urte horietako ibilbidea.

Joan zen zapatuan erakutsi zuten lehenengoz DVDa jendaurrean, Landako erakustazokan, denboraldi amaiera dela-eta egindako bazkarian. 140 orrialdeko liburua lau atalez osatuta dago. Eskutitzen atalean Hilario Pérez Tabirakoko presidentearen, Aitziber Irigoras Durangoko alkatearen eta Cafés Baqué enpresaren eskutitzak daude. Bigarren atalean Tabirakok izan dituen presidente guztien gaine-

ko informazioa batu dute. Tabirakok hartu-eman estua izan du betidanik Durangoko ikastetxeekin, eta hirugarren atalean 15 ikastetxegaz izandako hartu-eman hori jorratu dute. Azken atalak Tabirakoren 50 denboraldiak urtez urte laburbiltzen ditu.

Tabirakoren historian esanguratsuak izan diren lagunen ahotik egin dute errebasoa

DVDa atal bitan banatuta dago. CD batean Tabirakoren inguruko 10.049 argazki edo egunkarietarako albiste ikusi daitezke. Bigarrenak Bideografik-ek klubaren historiari buruz egindako lana batzen du. Tabirakoren historian esanguratsuak izan diren lagunen ahotik egin dute mende Erdiko errebasoa.

DVDak Tabirakok etorkizuneari jarraitu beharko lukeen filosofiaren gaineko hausnarketa ere proposatzen du. Azkenik, beste atal batean anekdotak eta pertsonaiarik esanguratsuenen gaineko informazioa batu dute. Liburua eta DVDa Durangoko Artekale 17 kaleko Damian den-dan daude salgai. ■J.D.

Borja Abasolo abadiñarrak Logroñoeko proba irabazi du

Cafés Baqué taldeko txirrindulari abadiñarrak Euskaldun Torneo-ko San Bernabé proba irabazi zuen domekan, Logroñon.

Ihesaldian 16 txirrindulari inguruk osatu zuten taldea. Baqué taldeko Daniel Díaz ere multzo horretan zegoen, besteak beste. Hain zuzen ere, Díazek ihes egin zuen kilometro gutxiren faltan, eta kilometro bakarra falta zela harrapatu zuen talde-txoak. Borja Abasolo ondo kokatuta sartu zen esprintean, eta ihesaldiko kideen aurretik gailendu zen. Iparragirre eta Aranzazuk osatu zuten podiuma; Diaz laugarren sartu zen. ■J.D.

Hegaleko jokalaririk bat eta pibota fitxatu ditu Sasikoak

Kurutziagatik Iker Arriaga eta Gernikatik David Vargas fitxatu ditu Durangoko taldeak

Ohorezko A mailara bueltan, Sasikoa areto futbol taldeak sufritu egin du aurten mailari eusteko, aurreikusitako zitekeen moduan. Datorren denboraldiari begira ere mailari eustea dute helburu, eta dagoeneko hasi dira taldea indartzeko fitxaketak egiten.

Oraindik, aurrelari baten eta atzelari biren bila dabil Sasikoa

Euskal ligatik jokalaririk bat fitxatu dituzte: Kurutziaga talde-tik Iker Arriaga hegalekoa eta Gernika talde-tik David Vargas euskarria. Horrez gainera, Sasikoaren bigarren talde-tik lau jokalaririk hartuko dituzte: Maikel González, Rubén Otero, Enrique Vallejo eta Carlos Corrales.

Oraindik, fitxaketa gehiago egin gura ditzutela azaldu dute: aurrelari baten eta atzelari biren bila dabilta.

Bestalde, Sasikoa taldea utziko dute Aitor Suarez, Aitor Olivares, Francisco Muñoz eta Jose Basalduenek. ■J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



“Txuri urdin, txuri-urdin...”

Zorionak txuri-urdin guztiei, bereziki, ni bezalako bizkaitar errealezaleei. Hiru urte bota ditugu infernua; hirurte luze, gogor, ilun... Desagertzeko zorion egon gara. Baina aurten zortea eduki dugu, aurreko urteetan falta izan zaigun zortea.

Denboraldiko klabea erregularitasuna izan da. Igoerako tokietan pasatu dugu ia urte osoa. Agian, azkeneko txanpan makal ibili gara, eta zortea eduki dugu besteek ere huts egin dutelako, baina argi dago merezimendu osoz igo gara.

Hiru urte hauetan, gauza asko entzun behar izan dugu, batez ere, albokoengandik. Bigarren maila behera, bigarren maila gora. Eta, klara, guk ezin izan dugu ganorazko erantzunik eman. Badago jende asko poztu dena, eta hori pozgarria da. Derbiak errekeratuko ditugu, euskal futbolak behar ditu-eta.

Txikitatik naiz errealezalea. Arkonada, Satrus, Lopez Ufarte, Zamora... Sasoi horretakoa naiz. Irabazitako liga haietan egin nintzen txuri-urdin. Ondarroa, Gipuzkoatik oso urbil egon arren, Athleticzalez josita dago.

Jakin dezala mundu guztiak, urte mordo nahi dugula egin lehen mailan, ez dugula nahi berriz ere hau pasatzerik. Ez dakit nondik atera den dirua baina Joseba Llorente fitxaketa oso ona da. Eta oraindik etorri litezke beste batzuk.

Azkenik, sei puntu ziurtatuta dauzkala dioen jende horri: erne! Partidu bat gorritz azpimarratuta badaukagu, zuen kontrakoa da.

Dima Golfek Pitch&Putt zelaia inauguratu du

Jose Ramon Garai Dimako alkateak ebaki zuen zelaia ofizialki inauguratzeko xingola

Dima Golfek Pitch&Putt zelaia ofizialki inauguratu zuten atzo. Hantxe egon ziren, besteak beste, Dimako alkate Jose Ramon Garai eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Saileko ordezkari Ana Lekue. Guztira, 50 bat lagun batu ziren irekiera ekitaldian.

Jose Ramon Garai izan zen 12:30ean xingola ebaki eta zelaia ofizialki inauguratu zuena. Ondoren, berba batzuk eskaini zituzten Dimako alkateak berak eta Dima Golfeko arduraduna den Josu Zabalak.

Segidan, jende guztiarentzako golf modalitate horren erakustaldia eskaini zuten. Hain zuzen ere, Dima Golfeko monitore batek eta bertan zeuden irlandar bik lehenengo hiru zuloak osatu zituzten, bertaratu ziren guztiei Pitch&Putteko zehaztasunak emanez.

Jan-edana denentzat

Erakustaldia amaitu ondoren, Lapurriketa sagardotegian batu ziren eta jan-edana egon zen inaugurazioara joan ziren guztientzako. ■J.D.



Jose Ramon Garai eta Josu Zabalak aurkezpen ekitaldian.

Adituarentxokoa

Kirol arloko hitzarmenak mantendu egingo ditu Durangoko Udalak

Elkarte, klub, federazio eta fundazioen artean 235.600 euroko diru-laguntzak banatu ditu



Eguaztenean Udaletxean egindako ekimenean sinatu zituzten kirol arloko eragileetako ordezkariak hitzarmenak.

Durangoko Udalak kirol arloko elkarte, klub, federazio eta fundazioekin dauzkan hitzarmenak berriro zituen eguaztenean. Hain zuzen ere, 13 eragile batu ziren Udaletxean aurtengo hitzarmenak sinatzeko.

Hauek dira udalagaz hitzarmena sinatu dutenak: Durangoko Txirrindulari Elkarte, Tabirako saskibalo kluba, Atletia Beteranoen Elkarte, Baqué fundazioa, Kulturala, Durango Rugby Taldea, Mugarra triatloi taldea, Euskal Gimnasia Federazioa, Extremeño futbol taldea, Sasikoa areto futbol taldea, Bizkaiko Eskupilota Federazioa, Alpinoko

Tabira mendizale taldea eta Durangoko Klasikoak ekimena. Guztira, 235.600 euro banatuko dituzte horien guztien artean.

Aitziber Irigoras alkateak krisi ekonomiko globala gogoratuz, hala ere "diru-laguntzak,

gutxienez, bere horretan" mantenduko dituztela jakinarazi zuen: "Datorren urtera begira ez dakigu egoera orokorra zelakoa izango den eta, beraz, ezin dugu aurreikusi erabaki lokalak ere nondik joango diren".

Gazteria, Kirolak eta Hezkuntza Batzordeko buru Ander Gorrotxategik adierazi zuenez, "laguntza denak ez dira ekonomikoak, eta udalarenak diren azpiegiturak utziz laguntzen ere ahalegintzen gara".

Kopururik eman barik, laguntzarik handiena jasoko duena Bizkaiko Pilota Federazioa dela adierazi zuen: "Azpiegiturak kudeatzen ditu, langileak kontratatuta ere badauzka eta gainera pilota eta zesta eskolei laguntzen die".

Zerrendan Baqué fundazioa dator ondoren: "Durangon txirrindularitza ezagutarazteaz gainera, besteak beste, emakumeen txirrindularitza sustatzen dihardu".

Segidan Kulturala, Tabirako eta Durango Rugby Taldea daude; hirurek kopura berdina jasoko dute. Mugarrari eta Alpinori ere laguntza berdina dagokie. Ondoren datoz, Sasikoa, gimnasia federazioa, Extremeño eta Durangoko Kasikoak. ■ J.D.

Kulturalak, Tabirakok eta Durango Rugby Taldeak laguntza berdina jasoko dute

Errugbi Eguna antolatu du zapatuan Elorrioko taldeak

Aurtengoa hirugarren aldia dute eta gura duenak parte hartu dezake

Joan zen asteburuan Durango izan bazen eskualdeko errugbiaren erdigune —Errugbi Tag Eguna antolatu zuen Durango Rugby Taldeak—, bihar Elorriok hartuko dio lekukoa. Herrian errugbi zaletasuna sustatzeko asmoz, III. Rugby Eguna antolatu du Elorrioko Rugby Taldeak. 16:00etan errugbi zelaian zazpiko tag modalitatean jokatzeko aukera eskainiko dute.

Txapelketa garatzen den bitartean txahala erreko dute, eta torneo amaizten denean, 21:00 inguruan, errugbi zelaian bertan afalduko dute. Orandik txartelak erosi daitezke, Parra tabernan; egunean bertan ere bai, zelaian. Sei urtera artekoentzako doan da; 6-15 artekoentzako 7,5 euro eta handik gorakoentzako 15 euro. ■ J.D.

laz 250 lagun inguru batu ziren Elorrioko errugbi zelaian egindako afarian



laz 100 lagunek parte hartu zuten errugbi zelaian egindako tag modalitatean.

Oizpek binakako txapelketa irabazi du trinketean

Euskal Herriko klubuen arteko trinkete txapelketako finalak jokatu zituzten, joan zen asteburuan, Abadiñoako, Gasteizko eta Iruñeko trinketeetan. Tor-noloson Berrizko Oizpek binakako finala irabazi zion Buruzgaini (40-30). Itxaroten zuten baino errazago jardun zuten berriztarrek. Bizkaia bostetik lau final irabazi zituen esku pilotan; Txumuluxueta —binakakoa kadeetan—, Lemoa —binaka gazteetan— eta Akarregik —buruz buru nagusietan— txapela jantzi zuten.

Gipuzkoak hiru titulu lortu zituen, eta Arabak eta Nafarroak bina eskuratatu zituzten. Paleta gomako txapelak irabazi zituzten. ■ J.D.

Portugalete kanpoan geratu denez, lurretako ez da igoko

Baldintza asko bete behar ziren lurretako lehenengo erregionaletik goren mailara igo zedin, eta ez dira bete. Batetik, Portugaletek 2. B mailara igotzea behar zuen, baina Getafe Bk kanporatu egin du.

Apurtuarte ohorezko mailako igoera fasean lehenengo geratzea ere behar zuten, eta baldintza hori ere ez da eman. Ondarroako Aurrera taldeak 2-1 irabazi zien, 92. minutuan sartutako gol baten ondorioz.

Ortuella goren mailara jaitsi da aurtengoa, eta arazo ekonomikoaren ondorioz taldeak jokatzeari uko egingo balio aukera txikiren bat izan dezake lurretakok. ■ J.D.

Zaldibarko Futbito Maratoiak 20 urte beteko ditu

Uztailaren 2, 3 eta 4an Zaldibarren antolatuko duten Futbito Maratoiak 20. aldia izango du aurtengoa. Txapelketa Zaldibarko kiroldegian garatuko da.

Izena emateko epea uztailaren 1era artekoa da. Interesatuak El Rincón de Paula tabernan apuntatu daitezke. Egun berean, uztailaren 1ean, norgehiagokan zozketa egingo dute Solobarrian.

Txapelketa irabazten duenak 1.000 euro jasoko ditu. Bigarren geratzen denak 600 euro irabaziko ditu; hirugarrenak 350 euro eta laugarrenak 250 euro. Herriko talde onenari ere 250 euroko saria emanango diote. Denek jasoko dute garaikurra. ■ J.D.

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Amaia Salazar
- Ileapaindegia dauka Elorrión

Ile-luzapenak: look aldaketa

Ilea hilean zentimetro bat hazten da, baina, gaur egun, ilea aldatzeko ez da itxaron beharrik. Nukleo ileapaindegiak ile-luzapenak proposatzen dizkigu, look aldaketa egiteko edo ile gutxi dutenei bolumena handitzeko.

Zer lortzen da ilea luzatuta?

Ile-luzapenak melena bati luzera eman diezaioke, baina bolumena ere bai. Ile luzapenak, esaterako, kopeta-ilean ipini daitezke eta horrela berehala estiloz aldatu. Kolore ugari daude, gainera; naturalak eta fantasia. Horrez gainera, hainbat lodieratako ileak daude. Ile-luzapenak lisotu, tindatu zein kizkurtu egin daitezke.

Ile gutxi dutenentzat proposa izan daiteke...

Bai, buruaren goialdean ile gutxi dutenentzat, adibidez, Hairdreams-ek mikro linea sistema berria atera du, eta oso emaitza onak ematen ditu.

Ile-luzapena nabaritu egiten da gure ileagaz alderatuta?

Ez du zertan, guk erabiltzen dugun Hairdreams ile-luzapenak, %100 ile naturala erabiltzen duten bakarrak dira, India eta Europako mendebaldetik ekarritakoa. Gainera, lotura gunek ikusezinak dituzte eta oso erosoak dira.

Zenbat irauten dute?

Sei edo zortzi hilabeteko kalitatea duten ile-luzapenak daude. Baita urte eta erdikoak ere. Azken hauek berrerabili egin daitezke.



ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilara
- Estentsioak
- Unisex
- Solarium bertikala

ORDUTEGIAK: astelekea-barikua: 9:00-19:00 • zabalua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik
ileapaindegia

astelehenerik
asteazkenara
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia **Amalia** Dietetika

- Drenatze linfatikoa
- Dieta personalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOAK •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOAK (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izferrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOAK

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Heldu da garaia, zatoz gu ezagutzera




Maria Bitarteko ikastetxean
Zuen beharretara
moldatuko gara.

Lourdesko Ama ikastetxean
**ATE IREKIEKIN
JARDUNALDIA**
otsailaren 3 an
16:30etatik 19:00etara

María Bitarteko eta Lourdesko Ama ikastetxeak

- Bertako euskera eta euskal kulturaren bultzatzaile.
- Haurtzaindegia "zuen beharretara" goizeko 7,30etatik arratsaldeko 19,30etara. Eskolako ume guztientzako zabalik.
- Uztail osoa zabalik.
- Dramatizazioa eta psikomotrizitatea.
- Ingelesa 3 urtetik aurrera.
- Herriaren erdian kokatuta.
- Baliabide didaktiko guztiak eta hezkuntza berriztapena.
- Elkarbizitza baserrian eta barnetegietan.
- Zelai zabalak, natura erdian ikasteko eta gozatzeko.
- Jantokia, bertako irakasleekin, 0 urtetik aurrera.
- Lan talde gaztea, esperientzaduna, inplikatu eta etengabeko heziketan.
- Ikasleen jarraipen eta orientabide zerbitzua familien harreman estuarekin.
